

ROTE ZORA: Alemaniako gerrilla feminista; gorputza erdigunean, armak eskuan > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Arnasari eutsi, uztailaren 23ko gauera arte IÑAKI ALTUNA > 11

2023ko ekainaren 24a | XVII. urtea • 830. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



IPARRALDEKO ZIKLISMOAREN HISTORIA

XIMUN LARRE ETA FRANCIS LAFARGUE-K
«L'HISTOIRE DU CYCLISME EN PAYS BASQUE NORD»
LIBURUA ARGITARATU BERRI DUTE. ARGAZKIAN
LARREREKIN HIZKETAN AGERI DEN ANDRE
DARRIGADE HANDIA DA PROTAGONISTETAKO BAT.

> 12 Patxi BELTZAIZ



**Rote Zora, armak hartu zituen
Alemaniako gerrilla feminista** 04

**Indarkeriatik ihesi, indarkeriaz
betetako bidaia aurkitu** 08

**Iparraldeko ziklismoaren historia
bildu dute liburu batean Ximun
Larrek eta Francis Lafargue-k** 12

**Artzaintza eta artzainak
ezagutzeko 25 mendi buelta** 17

**Pantaila Txikian: Androideak eta
ardi elektrikoak** 22

**Begien osasuna bereziki zaintzea
komeni da uda garaian** 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Israelen eta apartheidaren aldekoak berberak dira
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Esfortzuaren falazia
- 11 **Iñaki Altuna:** Arnasari eutsi, uztailaren 23ko gauera arte
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Itziar Elizondo:** Mina
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Faktore erabakigarriak eta erabakitzen dutenak
- 26 **Miren Azkarate Badiola:** Agur, maisu
- 25 **Amagoia Mujika Telleria:** Barkatu, ez zait interesatzen
- 30 **Maitane Martinez Eguiluz:** Adimen Artifizialaren alborapena jorratzen: sistema zuzen eta etikoetarantz



{ datorrena } Iñaki SOTO

Israelen eta apartheidaren aldekoak berberak dira

Britainia Handian Boikoten Aurkako Lege proiektuaren mamua berpiztu da. Erakunde publikoek giza eskubideen aurkako gehiegikeriak egiten dituzten enpresen edo herrialdeen aurkako boikotak babestea debekatu nahi du arau honek. Besteak beste, Israelgo Estatuaren aurkako boikota, desinbertsioa eta zigorrak (BDS, ingelesezko siglen arabera) indargabetu eta palestinar herriareki ko elkartasuna zaildu nahi dute legegile kontserbadoreek.

Legean Israel aipatzen ez den arren, argi dago proposamen honen atzean lobby sionistak daudela. Legearen aldeko ordezkariak ez dute gogo hori ezkutatzen eta aurkariei antisemitismoa egotzi diete. Proposamenaren bultzatzaileak nagusiki toryak diren arren, Alderdi Laboristan auziak eztabaida piztu du. Jeremy Corbyni antisemitismoa leporatu zioten berberak ari dira proposamena babesten. Hala ere, BDSaren aurka dauden zenbait erakundek ere araua kritikatu dute. Adibidez, Ikasle Juduen Batasunak (UJS delakoa) protesta egiteko eskubide demokratikoen aldeko eta horiek murrizteko lege proiektuaren aurkako mozio bat onartu zuen bere konferentzian.

ERAKUNDEAK ETA ESKUBIDEAK JOPUNTUAN

Udal agintariak, unibertsitateak eta sektore publikoaren pentsio-funtsek giza eskubideak ardatz dituzten kanpainen parte hartzea zailtzera dator legea. Adibidez, sektore publikoko langileek Israelen inbertsioak dituzten pentsio funtsak boikotatzea debekatu nahi dute. Kontserbadoreen zuzenketak onartzen badira, sektore publikoaren pentsio planetako kudeatzaileak ezingo dute «Erresuma Batuaren kanpo eta defentsa politikarekiko gatazkan sartzen den inbertsio erabakirik» hartu.

Arau hau eskubideen aurkako toryen eraso normatiboaren beste atal bat da. Adibidez, aurretik greba eskubidearen aurka egin dute. Giza eskubideen eta askatasun zibilaren aldeko erakundeek jokabide hori salatu dute, demokraziaren aurkakoa delako. Sindikatuekin batera, Right to Boycott koalizioa osatu dute.

AURREKARI ARRISKUTSUA

Britainia Handian denek dute buruan Hegoafrika eta apartheidarekin gertatutakoa. Irletan oso indartsua izan zen boikota [gehiago jakiteko Ronnie Kasrilsen liburuak irakur daitezke edo “London Recruits” filma ikusi]. Erregimen arrazista ahultzeko, presoan askatasuna babesteko eta gobernua ANCekin negoziatzera bultzatzeko, boikota funtsezkoa izan zen.

Erregimen arrazista ahultzeko, presoan askatasuna babesteko eta gobernua negoziatzera bultzatzeko, boikota funtsezkoa izan zen. Horixe debekatu nahi dute orain, Israelen alde

Udal erakundeak oso garrantzitsuak izan ziren kanpainan. Hamza Ali Shah ikertzaileak “The Tribune”n jaso duenez, «1980ko hamarkadaren erdialdean, Erresuma Batuko biztanleen bi heren inguru apartheidaren amaierarekin konprometitutako udalerrietan bizi ziren, eta lau britainiarretik batek Hegoafrikako produktuei boikota egiten ari zitzaizela zioen».

Horrexegatik, Margaret Thatcherrek Tokiko Gobernuaren Legea sartu zuen 1988an, udalerrien botereak mugatuz eta kanpainen parte hartzea debekatu. Hor dago gakoa: Israelen palestinarrek duten egoera apartheidean beltzek zutenaren parekoa dela ukatzen dutenak apartheidia babestu zuten berberak dira. •

ROTE ZORA

Alemaniko gerrilla feminista; gorputza erdigunean, armak eskuan

 **HISTORIA /** Iraitz MATEO

Ez dago beraien ar-gazkirik, ez dago apenas izenik, sigla bat besterik ez, RZ. Rote Zora. Mendebaldeko Alemanian, naziak armaz garituak izan ziren arren, haien sakoneko pentsamoldea eta praktikak bizirik zeuden. Orduan sortu zen emakumezkoen gerrilla urbanoa: Rote Zora. Euskaraz lehenbizikoz Katakraken eskutik jakin dugu «bidelapur» hauen historia: 20 urtez anonimatuaren egon den taldearen eta hark egindako 45 erasoen ibilbidea.

Dabid Lindemanek itzuli ditu “Rote Zora, hiri-gerrilla feminista piztiaren bihotzean (1974-1995)” liburuan euskaraz jasotako testuak. Antologia laburra da, militantei egindako elkarrizketak, ekintzen osteko komunikatuak eta emakumezkoen kongresuetarako idatzitako txostenak jasotzen dituen.

Alemaniko 1967ko gazteen errebolten biharamun luzearen elementuetako bat izan ziren gerrilla urbanoak. RZk, ordea, bazuen berezitasun bat: 25 eta 50 urte bitarteko emakume eta lesbianek soilik osatutakoa zen. Inperialismoaren eta kapitalismoaren kontrako iraultza, emakumeen askapena, gorputzaren inguruko esperimentazioa (izan drogaren, sexuaren zein dietaren bidez), eta musika genero berriak aldarrikatzen zituzten; finean, «bizitza antolatzeke unitate eta molde berriak» mahaigaineratu zituzten.

1974an sortu zen; hasieran Zelula Iraultzaileen baitan kokatzen zuten taldea eta haren jarduna, baina ondoren, modu autonomoan borrokan hasi ziren, nahiz eta haiekin oinarririk partekatu. Izenak ere ba-

Mendebaldeko Alemanian, 1974an, gerrilla urbanoa feminista bat sortu zen piztiaren bihotzean. Justizia lortzeko bidean, emakumeen askapenaren eta antiinperialismoaren alde jardun zuen borrokan. Armak eskuan hartu zituen gerrilla bakarra ez izan arren, ezezagunenatariko bat da, ziurrenik.

du esanahia, izan ere, Kurt Held idazlearen gazteentzako liburu batetik sortu zuten. “Zora Gorria eta bere taldea” du izenburu, eta aberatsei lapurtu eta behartsuenei ondatsuna banatzen zien taldeari egiten dio erreferentzia.

Interesgarriak bezain gaur egungoak dira gerrillaren hausnarketak. Izan ere, gizarte justuagoa eraikitzeke bidean,

arazoen erroetara jo eta analisi zehatzak egiten zituzten, posizio etikoetan geratu gabe, eta borroka ezberdinak elkar loturik zeudela ulertuta. Hausnarketa bakoitza ñabardurez josten zuten, eta hartutako erabakietan konpromiso irmoa erakutsi arren, kritikoak ere izaten ziren beraien erabakiekin, eta sarri azaleratzen zuten beste posizio interesga-



Gerrilla urbano feministaren logoa irudian, ondoren aldarrikapen eta ekintzetarako erabili zutena.

LA HISTORIA DE ROTE ZORA

rriren bat ere. Feminismoa oinarri hartzea zen beraien premisa: «Feminismotik aldatu nahi dugu dena», zioten.

Aldarrien aniztasunak deskribatzen du egokien Rote Zoraren estrategia politikoa. Horrela jasotzen du Katakraken hitzaurreak: «RZk Alemanian abortatzeko eskubidea aldarrikatu zuen, eta aldi berean, kontenplatu zuen munduko toki askotan industria farmakologikoa emakume indigenak antzutzeko masa-programak martxan jartzen ari zela. Sexuaz gozatzea aldarrikatu zuen, eta, aldi berean, emakumea sexu objektu bilatzen zuten tokiak mehatxatu zituen. Manipulazio genetikoki gerra deklaratu zion: ikerketatik hasi eta hura sustatzen zuten enpresen kontra jo zuen. Ulertu zuen emakumeen askapenaren barruan sartzen zirela antiinperialismoa eta kartzelen kontrako borroka, eta kapitalismoari gerra deklaratu zion».

MUGIMENDU FEMINISTA ARDATZ

Mugimendu Feministaren parte zirela zioten, baina beti aldarrikatu zuten ez zirela «emakumeen arazoei» irtenbideak bilatzera mugatuko: «Emakumeok emakume-kontuetan adituak eta gizonak, berriz, kontu politiko orokorren erantzule? Ez dugu nahi horrelako lan-banaketarik, ezta ezker politikoan ere». Mugimendu Feministak egitura patriarkal guztiei heltzen zien beraien arabera, eta kimu gaizto batzuk erauziz ez zela desagertuko zioten, baizik eta iraultza sozialaren prozesu luze baten ondorioz.

Militantzia ereduarekiko ikuspegi propioa ere bazuten. Izan ere, talde militantea ez zen ehuneko ehunean mili-

tantziara mugatu. Asteko ordu batzuetako eginkizuntzat zuten, baina milita zezaketen beste talde batzuetan ere; lan egiten zuen jendea zen, jendea zaintzen zuena. Militatzeko moduak ere bereizten zituen beste gerrilla urbano batzuetatik, eta batez ere gizon armatu militanteari kritika egiten zioten horren bidez.

Aldi berean, armak hartzearen inguruan gainontzekoek eginiko kritikari ere erantzun argia eman zioten Emma aldizkarian egindako elkarrizketan: «Zergatik ez du izurik eragiten gizon batek emakumeak erosi eta saltzeak, eta bai, aldiz, gizon horren autoari su emateak? Horren atzeko pentsamoldea hau da: gizarteak bidezkotzat hartzen duen biolentzia onartu egiten da, eta aldiz, baztertu egiten da haren kontrako defentsa». Emma al-

Inperialismoa kapitalismoaren garaiko fasetzat definitzen zuten. Eta estatua erorarazteko beraien estrategia haren zutabeak eraistetik igarotzen zen

Ekintzarekin zerikusirik ez zuten pertsonen bizia arriskuan jartzeko aukerak erantzukizun berezi batera eramaten zituen, eta ekintza asko horregatik utzi zituzten alde batera

dizkaria Alemaniako emakume feministen erreferentziazko argitalpena zen, eta Rote Zorak sarri erabiltzen zuen bere ideien berri emateko.

Dena den, ekintza armatuekiko ikuspegi zorrotza zuten, eta ez zuten inor zauritu haien bidez, erregistratuta dagoenaren arabera, behintzat. Emma aldizkarian aitortu zuten ekintzarekin zerikusirik ez zuten pertsonen bizia arriskuan jar-

tzeko aukerak erantzukizun berezi batera eramaten zituela, eta ekintza asko alde batera utzi zituztela jendearentzako arriskutsuak izan zitezkeelako.

GORPUTZAK ABIAPUNTU


Rote Zorako kideen ustez, erresistentziak agerian uzten zuen zapalkuntza. Eta hori zela-eta sabotatu, boikotatu eta hondatzen zituzten zenbait jabetza. «Erantzuleei eraso egiten diegu, jasandako indarkeria eta umiliazioengatik mendekua hartzeko».

Gorputzari lotutako borroka izan zen gerrillariena; hori defendatzen zuten beraiak. Feminismoaren bidetik ekarritako «pertsonala dena politikoa da» esloganarekin eta antzeko ideia politiko erradikalekin bat egiten zuten. Eta aldi berean, beraien ohiko ikuspegi zorrotzaz, kritika egin: subjek-

tibotasunaren politika introspekzio bihurtzeko arriskua jartzen zuten mahaigainean, eta gizarte aldaketarik gabeko aldaketa pertsonala gerta zitekeenaren beldurra azaleratu.

Inperialismoa kapitalismoaren garaiko fasetzat definitzen zuten. Eta estatua erorarazteko beraien estrategia haren zutabeak eraistetik igarotzen zen. Bestela esanda, uste zuten ez zegoela estatua eroraraziko zuen jopuntu zehatzik, eta mugimendu iraultzailearen arrakasta gobernu zentralak ezarritako bizi-baldintza guztiei eraso eginda etorriko zela zioten. «Txakur amets» gisa jotzen zuten aldarrikapen iraultzaile guztiak jomuga bakkarekin lotzea. Eta horregatik, zapalkuntzak ez mailakatzearen aldekoak ziren, zapalkuntzen muin eta ertz guztiak aztertu eta erasotzea-

Ezkerrean lehergailuak jarri zituzten lekuen mapa, eta eskuinean, emakumeekiko indarkeriaren aurkako aldarrikapena. LA HISTORIA DE ROTE ZORA



ren aldekoak. Aldi berean, baldintza ekonomikoek sexismoa eta arrazakeria betiketzen zituztela argudiatu zuten.

Emakumeen aurkako indarkeria eta indarkeria orokorra batera ulertzea defendatzen zuten. Horregatik, bi aldeak nabarmentzen zituzten. Zapalkuntza kapitalista amaitzea aski ez zela, batetik. Eta «gizon arauemailea» nor den ez aztertzeak emakumeak beren burua babesteko sortutako egitasmoetara mugatzea zekarrela bestetik, arazoari aurre egin beharrean.

“Hirugarren mundu” gisa izendatutakoarekin harreman estua izan zuten. Sistemarekiko lotura eten nahi zuten, eta horretarako beste herrialde batzuetako emakumeekin batera zituzten loturak bilatu zituzten. Ekintzak egiterakoan ere, emakume horiek zer paitaruko zuten edo beraien bizitzak hobetuko ziren galdetzen zioten beraien buruari. Esaterako, arropa dendetan sabotajeak egiteak ez zuen emakume horien bizitzarik aldatuko, eta ondorioz nahiago zituzten beste bide batzuk arakatu. Kurdistango herriarekiko elkartasunez eta Alemanian kurdu migratzaileak babesteko ekintzak ere egin izan zituzten. Kurduen aurka erabiliko ziren armak egiten zituzten Turkia eta Alemaniak, horien aurka jo zuten, eta Alemanian bertan arrazagatik kriminalizatu eta jazarritako kurduak babesa helarazi zieten.

ABORTUA ESKUBIDE IZAN ZEDIN

Egindako ekintzetatik asko abortuaren erreformaren aurkakoak eta emakumeen eskubideen aldekoak izan ziren. Lindemannek liburuan jaso ditu Abortu Legearen Erreformen aurka eginiko bi.



Lehenengo irudian, esterilizazioaren aurkako afixa eta bigarrean, presoen aldekoa. LA HISTORIA DE ROTE ZORA

1975. urtean izan zen lehen-dabizikoa: Mendebaldeko Alemaniako Auzitegi Konstituzionalari eraso zioten, abortuaren debekua legezkatat jo zenean. Rote Zorak erasoaren egunean bertan argitaratutako komunikatuaren bitartez, hain zuzen ere, ekintza «Konstituzioaren aurka, gure buruak defendatzeko» egin zuela adierazi zuten.

«Abortuaren Legeak ez du aborturik ekiditen, eta hori ongi dakite lege horren alde Jainkoa eta Polizia nahasten dituztenek», salatu zuten, eta gaineratu medikuek etekin ekonomiko handia ateratzen

«Abortuaren Legeak ez du aborturik ekiditen, eta hori ongi dakite lege horren alde Jainkoa eta Polizia nahasten dituztenek», adierazi zuten ekintza baten ondorengo komunikatuan

Giza Genetikaren Institutuak «sistemarentzat produktiboak diren haurrak» bakarrik nahi zituen. Ezgaitasunen bat zuten haurrak identifikatu eta abortua agintzen zuten



jarraitzen zutela abortuaren eskaintza modu pribatuan eta ez legezkoan eginez.

Bigarren eraso 1977ko maiatzaren lean egin zuten. Mendebaldeko Alemania oso emakumeak kalera irten ziren sexu-indarkeriaren aurka borrokatzera. Abortuaren Legearen Erreforma zela-eta hartu zituzten kaleak; izan ere «medikuen menpe» egotera behartzen zituztela salatu zuten. Batetik, medikuen bi herenek abortuari «boikota» egiten ziotelako; bigarrenik, adituen txostenak ez zituztelako aintzat hartzen, eta hirugarrenik, amatasun-laguntzari zegozkion gastuak eta Abortuaren Legeak sortutakoak gutxitzea erabaki zutelako.

RZren komunikatuetan, estilo zuzena eta zehatza ohikoa izaten zen arren, aipaturikoan mehatxu zuzenak egin zizkieten Severingi. Garai hartan Mediku Elkargo Federaleko lehendakaria zen, baita nazi ohia ere –Ssetako kidea– eta Batasun Sozial Kristauko kidea. «Rote Zorako kideok entrenatu egingo gara, eta ederto jipoituko zaitugu. Zure autoa erreko dugu, zure lortegia suntsitu eta zure txaleta eraitsi».

GENETIKA LABORATEGIEN AURKA

Munsterreko Giza Genetikaren Institutura egindako bisitan, bestalde, artxiboa suntsitzea lortu zuten 1987. urteko abuz-

tuan Rote Zorako militanteek. Bi ikuspegirengatik eraso zioten, batez ere. Batetik, emakumezkoak «seme-alaba produktiboak» izatera bultzatzen zituelako sistemak, eta ondorioz, jaio aurretik elbarri gisa identifikatutako haurrak ez izatera bultzatu, eta bigarrenik, «arrazaz-higienea» zaindu nahi zuelako aipatutako institutuak.

Berlingo elbarrituek giza genetikako kontsultategiak ixteko eskatu zuten hilabete luzez, 1987an, instalazio horiek «kontrolgunetzat» hartzen baitzituzten ahalik eta gizaki gehien erregistratzeko, eta «nahi diren zein nahi ez diren seme-alabak hautatzeko». Rote Zorak, abuztuan, protestekin bat egin eta artxibategiaren zati bat lapurtzea lortu zuen, eta beste zati bat erre egin zuen. Urtarrilean argitaratutako hausnarketa batean salatu zuten, halako institutuen arabera, gizartearen arazo guztiak biologikoak zirela eta medikuntzaren bidez konpon zitezkeela, izan alkoholismoa, alergiak, kriminalitatea edota ezgaitasunak. Eta horrekin plazaratu zuten «sistemarentzat produktiboak diren haurrak» izatera bultzatzen zuela institutuak. Horrez gain, garaiko Alemanian, herentzia genetikoa Europako demografia zaintzeko eta «arrazaz-higienea» zuzentzeko erabiltzen zutela ere mahaigaineratu zuten. Institu-

tuko zuzendarien hitzetan, «herri alemaniarra» desagertzeko arriskuan zegoen, eta ondorioz, bikote alemaniarrek soilik izan behar zituzten haurrak.

PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

Preso izateko mehatxuak gero eta jende gehiagori eragiten ziola zioen RZ kolektiboak. Izan ere, jarrera, pentsamendu eta ekintza egokien baitako zigor-sari paradigmaten baitan kokatzen bazuten ere, beraiek espetxea ez zuten errepresio-katearen azken katebegi gisa ulertzen, sistema kapitalista-inperialistaren berezko atal gisa baizik.

Espetxeetako sari eta zigorek, eguneroko agenda zehatz eta zurrunak eta urteak bertan

igarotzeak presoek nortasuna hausten zuten, gerrilla urbano feministaren ustez. Eta horrez gain, espetxe barruan lan egiten zuten enpresek etekinak ateratzen zituzten, presoek esplotazioaz baliatuta.

Hori zela eta, gutxienez bi ekintza egin zituen Rote Zorak afera horri lotuta. Beraien ohiko zuhertasunez, espetxean bertan ekintzarik ez egitea erabaki zuten, kaltetuenak presoak izan zitezkeela jakitun. 1984ko abuztuan Kreuzer enpresaren kamioi bat erre zuten, kartzelan su bonbak ekoizten zituelako. Eta 1985. urteko apirilean Koch enpresaren aurkako lehergailua jarri zuten Gütersen, kartzeletako langileen esplotazioa salatuz. Bi enpresak presoek eskulanaz

Preso hartzeko mehatxua gertutik bizi zuten. Espetxea ez zuten errepresio-katearen azken katebegi gisa ulertzen, sistema kapitalista-inperialistaren berezko atal gisa baizik

Herriz herri gerrilla autonomoak sortzea zen, RZren ustez, eginkizunik eraginkorrena, horrela soilik lortuko baitzuten estatuaren zutabeak lurrera botatzea

baliatzen ziren etekinak biderkatzeko.

AMAIERETAN HASTEKO DEIA

Rote Zorak argi zuten nola egin behar zitzaion aurre hamaika buru zeuzkan inperialismoaren eta patriarkatuaren heren-sugeari: herriz herri taldeak sortuz eta borrokarako antola-


tuz. Komunikatu, hausnarketa edota helarazten zuten dokumentu bakoitzak amaiera berezia zuten; bertan suma zitekeen beraien borrokarako gogoia, samurtasuna eta maitasuna. Baina, batez ere, konbikzioa.

«Sortu taldeak han eta hemen. Agur eta musu bat», «Emakumeen arteko loturen alde, nazioarteko emakumetaldeen alde!», «Erresistentzia posible da!», dira Katakrakek argitaratutako liburuko komunikatuetan jasotzen diren amaieretako batzuk. Beti esperantzarako bezainbat lanerako deia eginez: «Emakumeok altxatuko garen eguna etorriko da... Baina, horretarako, gaur bertan hasi behar dugu mugitzen».



Ezkerrean, emakumeei borrokarako deia egiten dien aldarria, eta eskuinean, munduko emakumeekin elkartasun aldarria.

LA HISTORIA DE ROTE ZORA



Afrikatik abiatu eta Espainia edo Italiara heltzeko bidaia egin duten gazteekin hitz egin du Save the Children taldeak. 2022an egin zituen elkarrizketak 9 eta 24 urte bitarteko gazteekin, eta orain eman dute txostenaren berri. Bidaia egin duten neska gazteen herenak aitortu du ibilbidean zehar biolentzia jasan duela. Beraien herrialdetik segurtasun bila ihes egin, eta segurtasun eza izan da haien aterpe milaka kilometrotan.

Girls Move North Africa izeneko ikerketarako 68 neska eta 34 mutil elkarrizketatu dituzte. Gazte horiek egindako bidaiak ulertzeko, erraietara jotzeko eta ondorengo interbentzioak hobetzeko asmoa du proiektuak.

Topatu zezaketena beraien herrialdean zutena baino hobe izango zela uste zuten Reinatouk, Paulinek, Amniek edo Ouidadek, baina bidaia ere gogorra izan zen.

ABIATU AURREKO BURUKO MINAK

Erabakia hartzen dutenek egin dute bidaia, baina nork hartzen du erabakia? Adina erabakigarria izaten da. Ikerketaren arabera, neska gazteenak (9 eta 13 urte artekoak) dira erabakia hartzeko prozesuan kontrol gutxien dutenak. Kasu gehienetan gurasoek edo familiako beste kide nagusiren batek hartu zuten erabakia; gazteek informazio oso gutxi izaten dute egin behar duten bidaiaren inguruan.

Bidaia erabakia hartu baino lehen abiatzen da. Izan ere, bizi izandakoaren ondorioz heltzen da erabakia, jaioterritik joateko behararen eraginez.



INDARKERIATIK IHESI, INDARKERIA GEHIAGO

Migratzaile haur eta gazteek jasan beharrekoa; bikoitza, neska izanez gero

 **GIZA ESKUBIDEAK** / Iraitz MATEO

Espainia edo Italia izaten dituzte helmuga Afrikatik ihesi doazen gazte askok. Jaioterrian bizi izandako biolentzia bezain arriskutsuak dira, ordea, bidaiak, eta helmugara iritsitakoan, esperotakorik ez, eta oztopo gehiago. Save the Children taldeak egindako ikerketatik abiatuta, zenbait gazteren bizipenen kronika laburra. Laburra bezain gogorra.

Askok etxetik ihes egin nahi izaten dute. Elkarrizketatueta-ko bostetik batek etxean jasotako biolentziarengatik ihes egin zuen; zazpitik batek, behartutako ezkontzatik eskapu. Hezkuntzarako sarbidearen bila, gerratik ihesi, medikuarenera joateko beharrak bultzatuta edota egoera ekonomiko hobe baten bila, beste askok.

Genero indarkeria eta indarkeria sexuala dira neska gazte asko etxetik atera eta ustezko

helmuga hobeen bila abiatzeko arrazoia. Genital femeninoen mutilazioa, senideek eragindako indarkeria edota bikotekidearen eraso matxistak izaten dira arrazoi nagusiak. 20 urteko Reinatouren kasuan, aitaren tratu txarrak: «Nire ahizpek etxetik ihes egin zuten eta gaur arte ez dugu haien berri izan. Aitak jakin zuenean, oinak erre zizkidan kalera irten ez nedin. Oinik ez baduzu, ezin zara irten. Burdinez erre ninduen ahizpek be-

zala ihes egin ez nezan... Gure herritik ihes egin nuen Dakarrera. Ez nuen nahi ni aurkitu eta ezkontzera behartzerik, harengandik urrun egon nahi nuen». Beste hainbatek diote beraien sexu orientazio edota genero identitatearengatik joan zirela ihesi.

Ikasi eta lan egitearekin amets egiten zuten bidaia abiatutako gazte askok; mutilen kasuan, lanean hasi beharrek hezkuntzako zirkulutik kanporatu zituelako eta nesken kasuan, familiak ikasketak uztera behartu zituelako, ezkontzeko kasurik gehienetan, eta beste batzuetan, ekonomikoki lagundu zezaten. Asko hezkuntzarako sarbidearen bila abiatzen dira. Hori da 24 urteko Marimaren kasua: «Gure lurraldetik alde egiteko bururatzan zaidan lehen motiboa hezkuntza da. Mediku izateko ametsa bete nahi dut, eta horretarako eskolara joan nahi dut».

PLANGINTZAREN BEHARRA

Bidaia egitea erabaki ostean, nola egin pentsatzea izaten da hurrengo urratsa. Senideak eta lagunak izaten dira informazio iturri nagusiak, baita internet bidezko plataformak ere. «Lagunak ni baino lehenago etorri ziren hona (Espainiara), eta gauza onak bakarrik kontatzen dituzte. Baina hona iritsi eta errealtatea oso desberdina da», aitortu du Amniek.

You Tube eta Facebook plataformak erabiltzen dituzte bidaiak antolatzen dituztenekin komunikatu eta informazioa lortzeko.

Bidaia, ordea, beti ez da planifikatu bezala irteten. Gehienentzat, bidaia oso arriskutsua izaten da, hainbat mehatxu jasotzen dituztelako.

Aurre egin beharreko arriskuaren artean daude sexu eta genero indarkeria, eraso fisikoak edo tratatu txarrak, zailtasun ekonomikoak (dirurik gabe geratzea edo lapurretak), atxiloketak, poliziaren basakeria, aterperik eza, lan esplotazioa... Baita eremu zailak zeharkatzea ere, hala nola basamortua edo itsasoa, gosearen, deshidratazioaren, lesioen eta heriotzaren mehatxuarekin.

BIDAIA ABIATZEAR

Neska gutxi egiten dute bakarrik bidaiari, sarritan senide helduagoek kontrabandistak kontratatatu ohi dituzte. Hori da Patriciaren kasua. 22 urte ditu eta bere gurasoek emakume bati ordaindu zioten bidaiari laguntzeko; «izeba» bezala aurkeztu zioten. Marokora iritsitakoan bakarrik utzi zuen: «Izeba bihurtu zitzaidan esan zidan bakarrik utziko ninduela eta nire bide propioa bilatu beharko nuela. Bera Marokora laguntzeko bakarrik zegoela». Beste kontrabandista askoren kasuan, aldiz, engainuak edota lapurretak gertatzen dira.

Elkarrizketatutako Saharaz hegoaldeko neska gehienek autobusez edo kamioiez egin zuten bidaiaren zati bat, baita autotop-a eginez edo autoa partekatuz ere. Errepide bidez bidaiatzeak arriskuak ditu: lapurretak, arazo mekanikoak, elikagai eta ur eskasia, sexu erasoak eta beste indarkeria mota batzuk. Hala ere, elkarrizketatutako nesketatik inork ez zuen kamioietan polizoi gisa bidaiatu, eta mutilen artean hori ohikoa izaten da.

INDARKERIA MATXISTA BIDAIA

Indarkeria sexistaren eraginez beren herrialdeetatik ihes egin

Hainbatek lurretik egiten dute bidaiari, lehen irudian ageri den bezala, batetik bestera joateko astoan laguntzaz. Beste batzuek, itsasoz, eta Italia zein Tunisiara iristen dira, bigarren irudian ageri den bezala.
Wakil KOHSAR | AFP
Fabio SASSO | EUROPAPRESS



zuten, eta elkarrizketatutako ia neska guztiek adierazi dute sexu indarkeriaren bat jasan zutela bidaiari zehar. Lehen pertsonan bizi izan ez zutenak beraien kideei egindako erasoaren lekuko izan ziren. Erasoaren egileak kontrabandistak, trafikatzailak, beste migratzaile batzuk, poliziak eta talde armatuetako kideak izaten dira kontakatu dute.

Trukerako txanpon gisa erabiliak izan ziren neska gazte asko. Beren komunitateko gizonen sexu esklabo gisa erabili zituzten mugak zeharkatzeko. «Migrazio bidaiari gurekin eramango zaituztegu, bizimodu hobea eskainiko dizuegu, baina trukean, mugak zeharkatzen lagunduko diguzue»,

Indarkeria matxista izaten da neska gazte asko etxetik atera eta ustezko helmuga hobeen bila abiatzeko arrazoia: etxeok egindako erasoak eta ezkontza behartua, batez ere

Bidaiari zehar mugak zeharkatzeko trukerako txanpon gisa erabiliak izan ziren neska gazte asko. Beraiekin bidaiatzen ari ziren gizonen sexu esklabo gisa erabili zituzten bidaiari

esaten zieten askori. 23 urteko neska kamerundar batek salatu du Aljeriako talde armatu batek taldean bortxatu zuela bidean zehar. Bere kontrabandistaren eskutik iritsi zen talde armatuko kideengana.

BIZIRIK IRAUTEN MEKANISMOAK

Neskek biziraupenerako eta aurrera egiteko mekanismo asko erabili zituzten bidaiari zehar. Asko saiatu ziren «ikusizina» izaten eta oharkabean pasatzen; poliziaren, talde armatuen edota bidaiari lagunen arriskuetatik kanpo egoteko. Batzuek beren janzkera eta itxura aldatu zuten: neska batek azaldu du bere ohiko arropa belo islamiar batengatik aldatu zuela Libian egon zen bitartean, atzerritarizat har ez zezaten.

Ouidaden kasua bestelakoa da, Marokotik Espainiara joateko mutil itxurarekin jantzi baitzen. Baina itsasontziz egindako bidaiari beroa jasanezin bihurtu zen eta arropa geruza batzuk kendu zituen: orduan konturatu ziren bidaiariak neska zela. Kontatu du modu hobean tratatu

zutela. Neska batzuen kasuan, hilekoa ere ezkutatu behar izan zuten. Ginean eta Gambian, esate baterako, trapauek erabiltzen zituzten bestelako higiegi iturririk ez zutelako, eta gainera, beraien feminitate salatu zezakeelako hilekoak.

Dokumentaziorik gabe bidaiatzea izan zen beste neska batzuen alternatiba; adibidez, Tunisiar elkarrizketatutako neska batzuek kontatu dute bidaiari lurrez egin behar zuten dokumentuak hertsapen eta abusu iturri bihurtu zitezkeela, kontrabandistek dokumentuak kentzen zizkietelako xantaia egiteko.

HELMUGAN, BAINA IRTENBIDE GABE

Helmugara iritsitakoan, aterpea lortzea bihurtzen da hurrengo arazo. «Tunisiara lehen aldiz iritsi ginenean, kalean egin genuen lo lehen egunetan. Hilabete batzuk pasatu genituen kalean lo egiten eta manifestatzen, baina inork ez die erantzun gure beharrei», dio 22 urteko Zainabek.

Ikastea zen bidaiari abiatu zuten beste askoren ametsa. Josephinek ez du lortu: «Benetan askatasuna nahi dut, eskolara itzuli. Medikua izan nahi dut. Estatuaren laguntza eskatu nuen, baina eskolan sartzea eskatzen dudana bakoitzean, paperak falta zaitzidala esaten didate. Batzuetan uste dut izango banitu, errazagoa izango litzatekeela hemen gauza batzuk lortzea».

Medikuarenera heltzea da beste batzuen helburua, baina ez da horren erraza. Farah Libiatik abiatu zen: «Gaixo nengoen, ospitalera joan nintzen eta botikaren errezeta eman zidaten, baina ezin izan nuen ezer egin, botikak erosteko dirurik ez nuen eta».



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Esfortzuaren falazia

Saia zaitez! Dena eman behar duzu; ez amore eman, pentsa nahi duzuna lor dezakezula ahalik eta gehien eman ez gero! Zenbat aldiz entzun ditugu esamolde horiek? Are gehiago, esan ez ezik, egunero irakurri ere egiten ditugu sare sozialetan eta antzeko mezuak dituzten kikarretan ere kafea hartzen dugu.

Ideologia edo pentsamendu meritokratikoa mundua bizidun den eta bakoitzak merezi duena jasotzen duen ustea da. Oso sineste hedatua da, eta gure ekintzak eta gainerakoei egunerokoan gertatzen zaizkienak justifikatzeko erabiltzen dugu. Uste horren arabera, “hazkuntza soziala” (hazkuntza ekonomikoari lotua) hobetzea, mundu guztia gizartearen “gora” iritsi dadin, pertsonen trebetasunak hobetzea bezain erraza da.

Baina meritokrazia boterearen abantaila sozial eta ekonomiko eusteko erabiltzen da. Lehiakortasunaren ideiarekin inguruan antolatutako gizarte batean murgilduta gaude. Zenbat balio dugun frogatu behar dugu, ahalik eta gehien saiatuz, eta hori egiten dugu, batzuetan atsedean hartzeak errudun sentiarazita ere. Estatu bat meritokratikoa den ustea badago, hori horrela ez denean, “gauza handiak” lortzen ez dituztenak alferrikakotzat joko dira, behar adinako ahalegina ez egiteagatik akusatu, edo adimen baxua esleituko zaie.

Justua den sistema batean bizi gara? Egia esan, askoz faktore gehiago daude, eta horietako batzuk ausazkoak dira, hala nola non jaiotzen garen edo hazten garen familiaren baitan, une honetan bizi dugun errealitatea eta aurretik aurkezten zaigun «bidea»

baldintzatzen dutenak. Ahaleginaren kulturak, ia konturatu gabe, izaki frustratu eta zorrigaitzoko bihurtu gaitu. Hori sentitzen du bere ikasketekin bat datorren lanposturik lortu gabe urte asko eman dituenak.

Gure bizitzaren zati handi bat merituak egiten saiatzen pasatzen dugu, inora iritsi gabe. Populazio nekaturia eta, askotan, nahigabetua gara. Behar adina ahalegintzen bazara guztiok aukera berak ditugula sinetsarazten digute, gizarteak guztiok aukera berberak eskaintzen dizkigula. Botereak gehien erabiltzen duen diskurtsoa da gizarte honen muturreko injustizia soziala ezkutatzeko eta erreproduzitzen jarraitzeko. Mezua ahalegintzen jarraitu behar dugula da, bestela ez garelako inora iritsiko. Gainera, bakarrik egiteko esaten digute; izan ere, beste batzuekin egiten badugu, baliteke gure ahalegina aprobetxatzea eta aukerak kentzea. Ahalegintzen bagara eta funtzionatzen ez badu, aukera berriak eskainiko dizkiguten beste herrialde batzuetara joan gaitzake bizitzera.

Egia esan, gure emaitzak ez daude beti horiek lortzeko egiten dugun ahaleginaren menpe. Hori esaten digun kulturak boterearen menpeko esklabo izateko prestatzen gaitu, geure buruarentzat ahalegintzen garelako sinetsaraziz, onurarik handiena merkatu kapitalistaren ekoizpen eta kontsumo bitartekoen jabeentzat den arren. Horregatik sortzen du hainbeste frustrazio, erruduntasun eta sufrimendu.

Inork ez du esan eguneroko bizitzan ahalegintzea beharrezkoa ez denik, baina bada ahalegin bat menperatuak izatera garamatzana, gainera inposatzen digutena, eta beste bat besteekin aske izateko, bizi nahi duguna izanik eta biziz, guztiz bestelako gizarte batean. •



Ahaleginaren kulturak izaki frustratu bihurtu gaitu. Alexei VEPREV | GETTY

saioaaginako@gmail.com

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Arnasari eutsi, uztailaren 23ko gauera arte

Apenas hilabete pasatu da herri eta foru hauteskundeak egin zirenetik. Badirudi askoz ere denbora gehiago igaro dela. Hauteskundeetako emaitzak baloratze-ko ere astirik gabe, berriak, eta ez nolana- nahikoak, bata bestearen atzetik azkar- tu dira. Pedro Sanchezek segituan hauteskundeetara deitu izanak, paktu dantzak eta alkateak hautatzeko lehen udalbatzarrek atzean, urrun, utzi dute azken hauteskunde gaua. Askoz hurbilago sentitzen dugu uztailaren 23ko boz eguna. Hilabete baino ez da falta.

Zirt edo zart, Estatuko panorama politiko-institu- zionala argitzeko hautua egin zuen Sanchezek; beste- la, udal eta autonomia hauteskundeetan izandako po- rrotaren ondotik, PSOE bere saltsan egosiko zela –egosiko zutela– jakitun.

Luzea egingo zitzaion urte bukaera arteko legealdi amaierako epera iristea, Es- painiako eskuin gotorrek egoera jasangaitza egiteko makineria osoa prest bai- tzuen. Mugimendu ausarta izan da Sanchezena, inork gutxik espero zuena; baina, finean, ez zuen alternatiba hoberik. Harentzat egoera okertu baino ez baitzen egingo.

Nolanahi ere, eskuinak La Moncloa hartzeko inda- rra non egin behar duen finkatua du. «Sanchismoa»- rekin amaitu, horixe da mezua. Horrek zehatz- mehatz zer suposatuko lukeen gehiegi azaldu gabe, erraz identifika daitekeen jopuntu bat jarri nahi izan dute Feijoo presidente bihurtzeko estrategia erabaki- tzen dutenek: «*Derogar el sanchismo*».

Hauteskundeen ondotik eta haien emaitzen arabe- ra beste partida bat hasiko da, hain zuzen ere, gober- nua osatzeko. Nor lortuko ote du gehiengo nahikoa? PPK irabaziko duela diote, baina ez omen da garaipen betea izango. Behar badu –eta beharko du La Mon- cloara iristeko nahikoa babesa izateko–, ultraeskuina-

rekin akordioa egingo duela zalantza gutxi dago. PP eta Voxen artean helburua lortzeko behar adina eser- leku eskuratuko ote dituzten da oraintxe argitu beha- rrekoa, edo, pixka bat bada ere, ezkerrek burua altxa- tuko ote duen. Inork gutxik uste du oraintxe PSOE alderdi bozkatuena izan daitekeenik, eta horregatik itxaropena ezkerreko blokea eskuinarenaren aurretik geratzea dute, tarte txikiagatik izanda ere. Bigarren izanik gobernatzea, hori dateke, antza, Sanchezentzat aukera bakarra. Lehen aldia litzateke Estatuan boz gehien biltzen duen indarraren aurretik bigarren in- darrak Espainiako Gobernua osatzen duela. Aukera izanda, Sanchezek egingo al luke urrats hori? Egoera konplikatua izango da eta, aurreikuspenak betetzen badira, gobernua osatzeko prozesua, zaila. Aurreko

Errazki identifika daitekeen jopuntu bat jarri nahi izan dute Feijoo presidente bihurtzeko estrategia erabakitzen dutenek: «Sanchismoa indargabetu»

saioak ere ez ziren batere samurrak izan, hauteskunde errepikapen eta guzti.

Egoera konplikatua horrek ondorio zuzenak izango ditu Euskal Herrian, garai berean, esate baterako, Na- farroako Gobernua osatzeko prozedura egongo baita martxan, eta dagoeneko, azken aste honetan bertan argi bezain garbi ikusi ahal izan dugunez, esan daite- ke hor ere katramila izan izango dela.

Unean uneko egoeraz harago, agerikoa da hautes- kunde hauen emaitzek eragin handia izango dutela egoera politikoan eta egoera politikoak eskaini edo ukatuko dituen aukeretan. Alde batera edo bestera. Alde batera edo bestera gidoia egokitzen jakin behar- ko dute euskal indarrek ere. •

Elkar argitale-
txeak "L'histoire
du cyclisme en
Pays Basque
Nord" liburua ar-
gitaratu berri du.

Francis Lafargue eta Ximun Larre dira egileak, Ipar Euskal Herriko txirrindularitza bikain ezagutzen dutenak, eta ezagutza hori zabaltzea eta belaunaldi berrientzat egoki gordeta uztea izan dute helburu. «Ondarea gordetzeko modu bat da eta liburuan aipatzen ditugun pertsonaiak eta gertaerak betiko gordeta geldituko dira. Beharrezkoa zela uste dut eta garrantzitsua», aurreratu digu Lafargue-k.

Ximun Larre kazetariak aipatu digunez, Ipar Euskal Herriko txirrindularitzaren historiaz idazteko asmoa aspalditik dator. «Egia errateko, bagenuen mamia prest lehendik ere. Duela urte batzuk Francis gauza batzuk idazten hasi zen bere aldetik. Gainera, argazki historiko franko zituen gordeta, ziklismo munduko jende aunitz ezagutzen duelako. Ene aldetik, banuen gogo txirrindularitzaz zerbait idazteko, baina ez nuen pausoa egin. Eta egun batean, biok Francisen etxean ginela, ordenagailu aitzinean argazki zaharrak ikusten, argazki biziki ederrak zirela iruditu zitzaidan. Benetako altxorra. Eta pentsatu nuen: ez da posible hau ordenagailu batean lo uztea, honekin zerbait egin behar da. Eta proposatu nion zergatik ez genuen biok elkarrekin liburu bat egiten. Horrela sortu zen ideia. Testu batzuk lehendik idatzita zeuden, beste batzuk berridatzi egin behar izan dira... Baina gauzak oso fite joan dira, lan asko aitzinetik eginak zirelako».



TXIRRINDULARITZA IPARRALDEAN

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ziklismoaren historia bildu dute liburu batean

KIROLA / Asier AIESTARAN

Ximun Larrek eta Francis Lafargue-k «L'histoire du cyclisme en Pays Basque Nord» lana argitaratu dute Elkarren eskutik. Hegoaldeko txirrindularitzak baino oihartzun apalagoa izan arren, Iparraldean izandako txapelak handiak ezagutu eta aldarrikatzeko balio du.

Liburua posible egin duen beste faktorea aurten Tourra Euskal Herriko irteera izan da. Proiektua martxan jartzeko behar zuten bultzada izan dela esan liteke. «Frantziako Tourra Euskal Herriko irteera da aurten. Bistan da, aunitz hitz egin da eta hitz egingo da gaiak, eta pentsatu genuen zerbait egin behar zela horrekin lotuta. Aunitz aipatuko da Euskal Herria, Euskal Herriko afizioa... baina

seguruenik Hegoaldera begira hitz egingo da gehienbat. Eta pentsatzen genuen Iparraldeaz ere hitz egin behar zela. Argi dago hemen ziklismoak ez duela Hegoaldean duen pisu bera, baina badugu lotura, eta badugu historia eder bat kontatzeko. Gainera, ikusten dugu historia hori apur bat galtzen ari dela, eta beharrezkoa zela kontatzea. Ondare hori nolabait atxikitzeke eta

transmititzeko zerbait egin behar zela pentsatu genuen», azaldu du Mediabask eta Velo-club hedabideetako kolaboratzaileak.

LAFARGUE-REN ZALETASUNA

Esan bezala, liburu hau posible egiteko ezinbestekoa izan da Francis Lafargue lapurtarrak urte luzez pilatu duen dokumentazioa. Txirrindularitzazale amorratua txiki-txikitatik, Miguel Indurainen garaian egin zen famatu Francis, txirrindulari nafarraren alboan egon zelako hark irabazitako bost Tourretan. Indurainen gertuko laguntzailea izan zen, bai itzultzaile lanetan bai beste edozein beharrezanetan eskua botatzeko. Lehenago Pedro Delgadoekin ere ibilitakoa, urte asko eman zituen Jose Miguel Echavari eta Eusebio Unzuerearen egituren, eta azken urteotan Euskadi-Murias eta Kern Pharma taldeen ordezkari moduan ere aritu da Estatu frantsesera begira.

«Aspalditik ibili naiz ni honetan. Oso gaztetatik hasi zen nire zaletasuna, txirrindularitza mundua aspalditik ezagutzen dut. Ni Biarritzen jaioa naiz, tren geltokiaren alboan, errepide nazionalaren parean, eta han Tourrean lan egiten zuen mekaniko bat egoten zen (Joseph Borthayre). "Brooks" eserleku markaren espezialista zen, eta marka hori erabiltzen zuten txirrindulari asko ezagutzen zituen: Loroño, Anton Barrutia, Bahamontes; frantsesak ere bai, Jean Bouvet, Anquetil eta konpainia. Niri gizon hark sartu zidan zaletasuna, kontatzen zizkidan pasadizoak-eta entzunez», gogoratu du Lafargue-k.

Eta zaletasun horretatik hainbat proiektu jaio izan dira urtea joan urtea etorri: «Alde batetik

Ximun Larre eta Francis Lafargue, argitaratu duten liburu esku artean hartuta.
Patxi BELTZAI

eta bestetik txirrindulari-ohien argazki mordoa iritsi dira nire eskuetara, eta urteotan gordezten joan naiz. Gainera, alde aurretik beste bi liburu ere idatzia ditut. Norbaitek armairu zaharren batean aurkitu ditue-lako, edo txirrindulari-ohien etxeetan. Albert Dolhats-en etxean, adibidez. Edo Paul Maye-ren alabaren etxean. Paul Maye baionarra gerraosteko txapeldun handia izan zen. Kanbon ere badugu lagun handi bat, txirrindularitza museo eder bat daukana, Henri Breuille. Hori bizikletara, mekanikara, zuzenduta dago gehiago, baina han ere badira artxibo eta dokumentu interesgarriak: hainbat lasterketarako argazkiak, irabazleen argazkiak...».

Orain argia ikusi duen liburu ere dokumentazio lan horretan oinarrituta dago, eta Ximun Larrek animatu zuen Francis lana martxan ipintzera. «Egun batean Ximunek esan zidan 'honekin zerbait egin beharra daukagu, liburu bat edo'. Nik bi eginak nituen eta banekien zer lan eskatzen duen, baina pentsatu nuen bion artean zerbait polita egin genezakeela. Eta aitzakia ederra eman zigun aurten Tourrak berriz ere Baionan etapa amaiera bat izango zuela jakiteak. Lanean hasi ginen eta emaitza liburu hau da».

GERRAOSTEKO IZEN HANDIAK

Liburuaren izenburuak gai zabala iradokitzen du, eta Ximun Larrek azaldu digu lana nola egituratu duten. «Badira hiru zati liburuan. Lehendabiziko partean protagonistak aipatzen ditugu. Aunitz txirrindulari, oraingoak eta lehengoak, baina txirrindulariak ez direnak ere badira: kirol zuzendariak, laguntzaileak... Horrelako jendea. Bigarren partean lasterketak ai-

«Ez da posible hau ordenagailu batean lo uztea, honekin zerbait egin behar da», pentsatu zuen Ximun Larrek Francis Lafargue-ren argazki artxibo mardula ikusi zuenean

Tourra Euskal Herritik irtetea izan zen lanean murgiltzeko behar zuten aitzakia. «Aunitz aipatuko da Euskal Herria, baina seguruenik Hegoaldera begira hitz egingo da gehienbat»

patzen ditugu. Batez ere Frantziako Tourra, bistan da, aspalditik pasatu izan delako Euskal Herritik. Baina baita beste batzuk ere profesional mailan. Espainiako Vuelta, askotan pasatu delako hemendik; Euskal Herriko Itzulia ere lehen hemendik pasatzen zen. Eta amateur mailan ere lasterketa aunitz antolatu dira. Finitzeko, bada beste atal bat, taldeei buruzkoa. Une honetan ez dira aunitz, baina lehen baziren gehiago eta horiek aipatzen ditugu», zerrendatu du.

Ximun Larre, Baionan egindako liburuaren aurkezpen ekitaldian. Patxi BELTZAIZ

Hain zuzen ere, Ipar Euskal Herriko txirrindulari historikoak ezagutzea izan daiteke liburu honen ekarpen nagusietako bat, horietako asko erabat ezezagunak direlako Hegoaldean. Asko dira, baina Ximun Larrek zein nabarmenduko lituzke? «Marcel Queheille aipatu liteke, duela pare bat urte hil zena. Zuberotarra. Bera da Frantziako Tourrean etapa bat irabazi duen Iparraldeko azken txirrindularia. 1959an izan zen, Baionan, eta geroztik ez du hemengo nehork Tourreko etaparik irabazi», ekin dio kazetariak.

«Eta beste bat, hemendik kanpo ere oso ezaguna dena, Andre Darrigade dugu. Sortzez landestarra da, baina aspaldian bizi da hemen, Euskal Herrian, Biarritzen. Historiako txirrindulari onenetako bat izan da, eta liburua idazteko aitzakiaz une oso hunkigarria bizi izan nuen bere etxean. Bere etxeke paretetan argazki

gogoangarriak daude: Fausto Coppi, Anquetil, Bouvet... Horrelako txirrindulariak daude argazkietan, eta bera orduko oroitzapenak kontatzen. 94 urte ditu, baina biziki ontsa da, biziki zuzen. Munduko txapelduna izana da, baina biziki simple, biziki umil hitz egiten du beti. Pertsona hori ezagutzea biziki hunkigarria izan da niretzat», gehitu du.

Francis Lafargue-ri ere eskatu diogu zaleentzat ezezaguna izan daitekeen ziklistaren bat aipatzeko. «Erabat ezezaguna ez nuke esango, baina bai agian guk, eta zer esanik ez gaur egungo gazteek, ezagutu ez ditugunak. Ziur gaur egungo gazte gehienek ez dakitela Roger Lapebie izeneko baionar batek Tourra irabazi zuela 1937an, eta Baionan izen hori duen kale bat dagoela horregatik. Arraroa izan liteke, baina hori da egocera. Pentsa ezazu Tour irabazle hori bilbotarra edo donostiarra izan balitz zein desberdina izango zatekeen oihartzuna», hausnartu du.

«Edo lehen aipatu dudan Paul Maye bera. Ezagutzeko aukera izan nuen Baionako belodromoaren zuzendaria zenean. Txapeldun handia zen, Paris-Roubaix irabazitakoa 1945ean, gerraostean. Roubaix-era zoazenean, bertako dutxa famatuetan irabazleen izenak agertzen dira eta tartean dago Mayerena, baionar batena. Hori ere jende askok ez du jakingo, baina ni hunkitu egiten naiz baionar bat hainbeste txapeldun handiren artean ikusita. Paris-Tours klasikoa ere hiru aldiz irabazi zuen eta Frantziako esprinter onena zen garai hartan, historiako onenetako bat dela esatera ausartuko nintzateke. Boreoan ere aritu zen, igerian Aturri ibaian... Erretiroa hartu



zuenean taberna bat ireki zuen Baionan, Panneau ka-lean. Ezagutzeko aukera izan nuen. Nire aitarekin hartzen zuen aperitifa eta egun batean aipatu zion bere semeak, nik alegia, Tourra ongi ezagutzen zuela, eta oso lagunak egin ginen. Argazki album bat utzi zidan, balio handiko argazkiak zituen. Eta argazki horiek mila hitz baino gehiago adierazten dute askotan», gehitu du.

ILUSIOA URTE ZAIEN OSTEAN

Aipatu dizkiguten izenak aspal-dikoak dira, eta horrek argi erakusten du zenbait hamarkadatan Ipar Euskal Herriko txirrindularitzak izan duen apalaldia. Garapen hori ongi ezagutzen du Francis Lafarguek, eta testuingurua ulertzen lagundu digu. «Gerraosteko urteetan, 1950eko hamarkadan, txirrindularitzak urrezko aroa izan zuela esan daiteke. Ia egu-nero zeuden lasterketak, eta

maila guztietakoak, hasi gazte-txoenetatik eta profesionaletaraino, nahiz eta gehienak amateurak ziren. Lasterketa asko, txirrindulari asko... Guk "sud-ouest" deitzen diogun Frantziako hego mendebalde guzti horretatik etortzen ziren ziklistak, sariak ere aintzat hartzekoak ziren garai hartarako... Eta, noski, horrek publikoa erakartzen zuen».

Argi dago konparazioek ez dutela asko balio: «Beste ohitura batzuk zeuden: langileak lanetik irtendakoan lasterketak ikustera hurbiltzen ziren, adibidez. Udan ere herri bakoitzak bere Sari Nagusia antolatzen zuen festetan, askoz errazagoa zelako administratiboki lasterketak antolatzea. Badakigu Hegoaldean ere oraintxe nola dagoen egoera antolatzailentzat. Lasterketak babesten zituzten aperitif markak ere baziren, orain debekatuta dagoena. Laguntza

Roger Lapebie, Andre Darrigade edota Paul Maye txapeldun handiak izan ziren, baina ez dira oso ezagunak. Oihartzuna oso bestelakoa litzateke Hegoaldean jaioak izan balira

Argazkiz bikain hornitua, frantsesez idatzitako liburuak 136 orrialde ditu eta 20 euroko prezioan dago salgai Iparraldeko hainbat dendatan eta Elkar argitaletxearen webgunean

1925ean Biarritzeko
itsasargi inguruan
korritutako abiadura
lasterketa.
AMICALE BIBI

asko eta jendearen aldetik ere gogo handia, zenbait urtez gerraren miseriak sufritu ostean. Baina gero beste kirol batzuen kompetentzia agertu zen. Hasieran errugbia edo pilota, esaterako, eta belaunaldi berriekin beste hainbat, surfa edo beste edozein. Interesa galtzen joan da apurka-apurka eta lizentziak galtzen joan gara hamarkadaz hamarkada».

Ximun Larrek ere onartu du izandako beherakada, baina azken urteotan egiten ari den lana aipatu digu, etorkizunera


begira garrantzitsua izango dena: «Urte ilun batzuk igaro ditugu, baina nahi nuke nabarmendu azken urteotan berri ere apur bat indartzen ari dela. Duela bost urte, adibidez, Tourra Senperetik igaro zen, eta Senperen talde berri bat sortu dute duela gutxi. Donibane Lohizunen ere sortu dute beste talde bat. Eta duela bi urte junior mailako talde bat ere sortu zuten, Team Iparralde izena duena. Helburua litzateke Iparraldeko gazte onenak bateratzea Hegoaldeko lasterketetan korritzera joateko. Horietatik onenak pasatu ko dira goiko amateur talde batera eta, beharbada, egunen batean profesional izateko aukera izango dute. Erran nahi dut, aunitz galdu dugu, lasterketa aunitz galdu ditugu, lehen herrietako bestetan, adibidez, baziren lasterketak ia asteburuero. Horretara ez gara itzuliko, noski, baina nahi nu-



ke azpimarratu urte ilun batzuen ondoren argi apur bat ikusten ari garela».

Eta azken hamarkadan profesionaletara iritsi diren ziklistak ere nabarmendu nahi izan ditu: «Queheille eta Darrigade aipatu ditut lehen, baina Romain Sicardek ere merezi du aipamena. Biziki txirrindulari ona izan da. Munduko txapel-duna gaztetan, Frantziako Tourra askotan korritu du... Duela bi urte bizikleta utzi zuen bihotzeko arazo bat tarteko. Orain badugu beste txirrindulari profesional bat, Cyril Barthe. Bere aita biarnesa da, baina ama euskalduna. Hegoaldean izana da; Euskadi-Murias taldearekin pasatu zen profesionaletara. Orain Espainian dabil, Burgos-BH taldean. Gure profesional bakarra da oraingo, baina gure nahia da beste bat edo bi izatea. Izan ere, profesional bat baduzu zure herrian edo ondokoan, horrek giro bat sortzen du gazteak txirrindularitzara hurbiltzeko. Garrantzitsua litzateke, beraz, bizpahiru profesional izatea grina hori berriz ere pizteko».

Francis Lafargue-k ere ez du esperantza galdu etorkizunera begira txirrindularitza indartzeko. «Zorionez, oraindik ere gaztetxo batzuk badaude ziklismoan lehiatu nahi dutenak, eta esango nuke agintariek ere ulertu dutela lagundu egin behar zaiela. Team Iparalde taldea hor da, adibidez. Klub bakoitzeko ziklista onenak batzen ditu eta mugaren bestaldean Hegoaldeko egutegia korritzeko aukera dute. Errazagoa da Gipuzkoara joatea Perigueaux-era joatea baino, Bordeletik aurrera joanda. Bizitzan bezalaxe esperantza da kirolean inoiz galdu behar ez dena».



Liburuaren azala eta lanean jasotako hainbat argazki historiko. Goian ezkerrean, esaterako, Darrigade eta Anquetil, 1962ko Tourrean; goian eskuinean, Roland Llamouzy; Saint-Leon belodromoko zenbait irudi... GAUR8



Amaia BALLESTEROS

IRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK

IRAKURRI DUT GETXON HAUR BAINO TXAKUR GEHIAGO DAGOELA.

BAITA GASTEIZEN ERE.

TXAKURRA ANIMALIA MAITAGARRIENETAKOA OMEN DA. ONDORIOZ, GERO ETA JENDE GEHIAGOK EROSTEN DITU.

?

HORREGATIK DAGO DENA HAIN ZIKIN!

TXAKURREN KAKAK ETA PIXAK LORATEGI, KALE, BIDEGORRI ETA HONDARTZETAN IKUSTEN DIRA.

OOOOPS! EZTABAIDA DATOR!

BAINA... OROKORREAN, JENDEA NAHIKO ARDURATSUA DA BERE ANIMALIEKIN...

TXAKUR-GOROTZ GEHEGI INGURUETAN. TXAKURRA ZUREA BADA ZERGATIK, ORDUAN, BERE KAKA DENONA?

EGUNGO GIZARTEAREN IZURRIA DIRA!

MASKOTEK EZ DUTE INOLAKO ERRURIK...

TXAKURREN KAKA JASOTZEN EZ DUTEN JABEAK IDENTIFIKATUKO NITUZKE ETA ISUNAK JARRIKO NIZKIEKE.

NIK "TXAKURREN ZERGA" JARRIKO NUKE. POLTSIKOTIK ORDAINDU BEHAR DENEAN, JENDEAK GAUZAK HOBETO PENTSATZEN DITU.

HAUR-KOTXEETAN ERAMATEN DITUZTEN TXAKURRAK, TXAKURRENTZAKO TABERNAK, TXAKUR-PSIKOLOGOAK...

JENDEA TXORATZEN ARI DA!!!

TXAKURFOBIKOA!!

MARTXA HONETAN, TXAKURREK PERTSONEK BAINO ESKUBIDE GEHIAGO IZANGO DITUZTE!

ARAU ZIBIKOAK ERRESPEATATU BEHAR DIRA.

HUMMM... AGIAN LEKU BATZUETAN PERTSONEK BAINO HOBETO BOZKATUKO ZUKETEN...

AB 23

ARTZAINAZA ETA ARTZAINAK EZAGUTZEKO 25 MENDI BUELTA

Andoni URBISTONDO

Txusma Perez Azazetak hamarkadak daramatza argitalpenen munduan sartuta. Hasi zenean konpromiso finkoa hartu zuen: urtero mendiarekin zerikusia zuen liburu bat argitaratzea SUA argitaletxearen eskutik. Eta hala egin du aurten ere. “Cañadas y Senderos de Pastores” liburu argitaratu du, baina hainbat berrikuntzarekin. Nagusia, Sara Carte bikotekidea izan duela bidelagun, liburu osatzerakoan. Sara izan da, hain zuzen ere, liburuan protagonista diren artzainen lekukotzak bildu dituenak. Biek bilduma lana egin dute ondoren, liburu osatu arte.

Txusma aski ezaguna da mendi argitalpenen munduan. Legazpiarra jaiotzez, txikitatik hasi zen mendian. Hainbat agerkari sortu ditu bere ibilbide abera-


Txusma Perezek eta Sara Cartek «Cañadas y Senderos de Pastores» liburu argitaratu dute, SUA argitaletxearen eskutik. Urtebete eman dute 25 ibilbide osatzeko, baina ez nolana hikoak: artaldeek bailaratik goi larreetara egiten dituzten bideak errepikatu dituzte, artzainen testigantzak bildu, eta haien bizitza jaso, iragana, oraina eta geroa uztartuz. Ibilbideak gertuko tontor bateko igoyerarekin aberastu dituzte, irakurlea erakartzeko.

tsean: “El Mundo de los Pirineos”, “Euskal Herria”, “Likken”... Guztiak SUA argitaletxera lotuta, Txusma bera argitaletxeko arduradun jardunean zela. Bi urte atzera, aurre jubilatu egin zen, baina koordinatzaile izan zen tartean urtero liburu bat idazten zuenez, eguneroko beharra utzi ondoren ere konpromiso berari eutsi dio.

Bikotean liburuak osatzeko prozesuan Txusma izan da idazlea normalean, baina Sara testuen zuzenketa eta moldaketa hartu izan du bere kargu. “Cañadas y Senderos de Pastores” liburuan, ordea, Sara testuak idazteko eta artzainen lekukotzak biltzeko ardura hartu du.

Sara Carte: «Txusmari liburuak idazteko jardunean lagundu izan diot betidanik, baina bi urte atzera liburu honetako kide izateko proposamena egin zidan. Hausnartu, eta librantza urtea hartu nuen iaz, liburu osatu ahal izateko». Ez omen zaio nekeza egin testuak osatzea. «Demagun orain arte laguntzaile izan naizela, eta oraingoan sortzaile ere bai. Txusmak ibilbideen ardura hartu du, eta neuk, artzainen elkarrizketak, artzaintza eskola eta beste. Oso aberasgarria izan da esperientzia».

Liburuak politak izaten dira behin argitaratuta, baina atzetik lan handiko jarduna eskatzen du. Nola, nondik hastea erabakitzea, adibidez. Txusma Perez-i azkar sortu zitzaion ideia: «Liburu hauek argitaratu baino askoz lehenago pentsatzen dira: urtebete pasatzen da gero osatzerako, eta ia beste urtebete argitaratzerako». Urtero liburu bat idazten baduzu, gaiak bukatzen joaten direla dio, eta Legazpi jaioterrian bilatu zuen inspirazioa: «Inguruko artzain asko ezagutzen ditut, Aizkorri eta Aralarren batez ere. Mendiko kuadrilla ere Legazpikoa dugu, eta haiek beti hurrengo liburu noizko argitaratuko genuen galdetzen ziguten. Artzainen kontua atera zen arte». Ez omen zen hasiera erraza izan. «Artzainekin denbora pasatu behar delako, eta denbora hori bilatzeko asteburuero mendira joateko dugun ohitura errotik moztu behar zen derrigor».





Hala gerta ez zedin, kuadrillarekin egin ohi diren mendi irteerak ez galtzeko, halako zirrikitua bilatu zuen bikoteak: Sara Cartek urteko librantza hartu eta aste egunetan egitea elkarrizketak artzainekin. Corte: «Hego Euskal Herriko hainbat artzainekin hitz egin dut, Arantzazuko Maiztegi artzaintza eskolako Batis Otaegi arduradunak aholkatuta. Kontaktu asko erraztu dizkit».

Bikotea halako oreka mantentzen saiatu da Hego Euskal Herriko herrialde guztien artean. Txusma Perez: «Ezin duzu herrialde jakin bateko 10 ibilbide, eta beste bateko bakararra sartu. 25 ibilbide jasotzen ditu azken liburuak, eta oso

banatuta dago: 6-7 ibilbide Hego Euskal Herriko herrialde bakoitzean». Helburua, finean, saltzea omen da, «eta leku guztietan saltzeko, halako oreka mantendu behar duzu argitalpenean».

Asmoak eta agenda zehaztuta, lekukotzak biltzen hasi ziren Sara eta Txusma. Sara Carte: «Lagun bat artzaina da, eta euren egunerokoa ondo ezagutzen dugu. Haiek egiten zituzten ibilbideez gain, euren lanbideaz mintzatzeko eskatu genien, ikusgaitasuna emateko asmoz: euren egun onak, hain onak ez zirenak eta beste». Artzain denek erraztasunak eman dizkiete eurekin batzartzeko. «Batzuekin errazagoa izan

Alboko orrialdean, Txusma Perez eta Sara Carte, liburuaren egileak. Lerro hauen gainean, artzain bat artaldea zaintzen, Zarrakaztelun. Gorka RUBIO - Jagoba MANTEROLA | FOKU

«Lagun bat artzaina da, eta euren egunerokoa ondo ezagutzen dugu. Haiek egiten zituzten ibilbideez gain euren lanbideaz mintzatzeko eskatu genien, ikusgaitasuna emateko asmoz: euren egun onak eta ez hain onak»

«Artzain askok diote seme-alabek ez dutela euren jarduna jarraitu nahi eta nekatuta daudela, baina gero Maiztegi artzain eskolara joan, eta urtero dozena bat gazte ikusten ditugu, ilusioz beteta, artzaintzari ekiteko gogoz»

da, baina oro har, ez dugu arazorik eduki. Artzainek euren bizitzaren berri emateko gogoia dutela esango nuke». Txusmak Gorobel mendikateko artzain baten emaztearekin izandako pasadizoa ekarri du gogora, borondate handirik erakutsi ez zuen artzain bakkaretako baten pasadizoa gogoratzeko: «Emaztearekin hitz egin nuen, eta ezer ez zuela jakin nahi esan zidan; jubilatzekeo gogoia zuela eta otsoen erasoekin nekatua zegoela».

Sara artzainen egun onez eta hain onak ez direnez mintzatu da. Zer ote da, bada, egun on edo txar bat artzain batentzat? «Egun on bat egunerokoa ikustea da. Ez dutela oporrik behar, adibidez, gustura sentitzen direlako bere egunerokoarekin: ardiak larretara igo, jaitsi, jetzi...».

Artzainen batek, egunen bat libratzeko beharra izanez gero, egun hori arazorik gabe hartzen duela ikusi dute liburuko bi egileek. Egund txarren berri ere izan dute, tarteka: «Mendizaleei ihes egiten dieten zakurrak daudenean, adibidez, haiek ardiak beldurtu eta sakabanatzen dituztelako. Artzaina ardien bila joaten da utzi dituen tokira, baina batzuetan ez dituzte bertan topatzen...».

ARTZAINZAREN EGUNEROKOA

Txusmak eta Sarak liburu ezberdina osatzea zuten helburu serio jarri zirenean: artzainen ibilbideak jasotzea, eta irakurleak ibilbide hori egiteko aukera izatea, baina baita artzainaren produktua balioan jartzea ere, batez ere gazta ekoizpena. Gazta nola ekoizten den azaltzen dute egileek.

Han eta hemen galdetuta, kontraesanak sumatu omen ditu Txusma eta Sara bikoteak: «Artzain askok diote seme-alabek ez dutela euren jarduna jarraitu nahi eta nekatuta daudela, baina gero Maiztegi artzain eskolara joan, eta urtero dozena bat gazte ikusten ditugu, ilusioz beteta, artzaintzari ekiteko gogoz».

Jon Harreguy 19 urterekin hasi zen artzaintzan, Zerainen, eta Sara Cartek dioenez, «pasio handia transmititzen du berarekin solastatzen zarenean».

Urbistondo du bikotekide eta Garaa gaztak ekoizten dituzte. Kontziliazioaz mintzatu da Sara. «Seme-alabak txikiak zirenean haiek uda bordan pasatzen zuten, baina hazten joan diren neurrian, jakina, herrira bueltatu nahi zuten». Seme-alaba gazteak dituzten artzainek egoera zaila omen dute: «Seme-alabek aitaren bideari jarraituko dioten ez dakite, baina badakite ez direla molde berean ariko: herrian bizi eta ardietara noizbehinka igo nahi lukete».

Esne ekoizpen garaia da urteko gogorrena artzaintzat: «Orduan iritsi ezinik ibiltzen dira», dio Txusmak, «baina beste hilabete batzuetan lasaiago. Gaztandegiak kooperatiba bilakatzen joango direla esango nuke, lan karga arintze aldera. Lauzprobost ekoizle elkartu, eta aurrera». Arantzazuko artzain eskolan artzainek enpresa kontuetan, arauetan, marketinean ikasiak bukatzen dutela gogorarazi du, «eta artzainak baino artzain-enpresariak direla esan genezake».

ARTZAINZTA MODERNOAGOA

Maiztegiko artzain eskolaren ekarpenaren harira, liburu egileek artzaintza aldatzen ari dela pentsatzen ote du-

te? Txusma: «Noski, aldatzen ari da, baina artzaintza 4.0 aktibitate bilakatu da? Egun sakelakoarekin ardiak non dauden jakin dezakete artzainek, GPS gailu bat duelako ardien mugimenduak jarraitzeko. Orain arte artzain elektrikoarekin mugatzen zituzten abereen mugimenduak, egun zein partzelatan dabiltzan badakite dagoeneko». Aldaketak normaltzat jo ditu Sarak ere: «Ezin zaie duela lau, bost hamarkada bezala bizitzea exijitu. Hori esaten duenak baldintza haiek nolakoak ziren ezagutu beharko luke, agian». Artzain kopurua jaitsi dela onartu dute, «ukaezina da hori, ardie-na bezala», baina artzaintza mantenduko dela ziur daude, bilakaera han-

Txusma Perezek eta Sara Cartek liburu ezberdina osatzea zuten helburu: artzainen ibilbideak jasotzea, eta irakurleak ibilbide hori egiteko aukera izatea, baina baita artzainaren produktua balioan jartzea ere, gazta nagusiki

«Artzaintza aldatzen ari da. Egun sakelakoarekin ardiak non dauden jakin dezakete artzainek, GPS gailu bat duelako ardien mugimenduak jarraitzeko. Orain arte artzain elektrikoarekin mugatzen zituzten abereen mugimenduak»

Behoko irudietan «Cañadas y Senderos de Pastores» liburuaren lehen plano eta Urbiako artzain txabola bat.

Gorka RUBIO- Juan Carlos RUIZ | FOKU

diarekin: «Artzaintzak lan arrunt baten itxura hartuko du, egun asko bordan edo goi larreetan pasatu gabe, ardiak euren kabuz mendian bazkan».

Harrotasunez mintzatu dira bi egileak osatutako 25 ibilbideen inguruan. Txusma Perezek azaldu duenez, «ibilbide errazak dira, edozeinek egiteko modukoak: ez da lau hankatan ibili behar, ez dira luze-luzeak, hiru eta bost ordu artekoak, eta ardiak ibiltzen diren ibilbideak dira, tarteka ardiak nondik nora ibiltzen diren ikusiko bagenu harritu egingo baginateke ere». Gida praktikoa batekin aberastu dituzte ibilbideak: desnibela, denbora, ezaugarriak... Ibilbideak osatze aldera, gailuraren bateko igoerarekin biribildu dituzte horiek: «Aralarko larreetara igo badira ardiak, bada, inguruko mendi bat igo, horrek ibilbidea erakargarriago egiten duelako. Denoi gustatzen zaigu mendiren bat igotzea mendira joaten garenean». Argitaratu berri den liburu-ko xehetasunak ematen ari direla, datorren urtekoan pentsatzen hasiak dira dagoeneko Txusma Perez eta Sara Cartek. Mendiei buruz izango omen da, baina horraino, momentuz, bikoteak emandako informazioa. 2024. urtean xehetasun guztiak!





Itziar ELIZONDO

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Mina

Kresala zineklubetik atera naiz halako euforia batekin, ohi bezala film ederrekin. Oraingoan "All the Beauty and the Bloodshed" izeneko dokumentalarekin gertatu zait, Veneziako Zinemaldiko Urrezko Lehoiaren saridun, 2022an. Nan Goldin argazkilari iparramerikarrak eta PAIN (Prescription Addiction Intervention Now) taldeak Sackler familiaren aurka abiarazitako istorioa kontatzen du.

Arte mezenasgoaren bitartez diru zikina disimulatu nahi duten aberats horietakoak dira Sacklertarrak. Jarduera hori, baina, postureo hutsa da, goi mailako jaietan familia kultura eta sentikor gisa ondo geratzeko. Jendearen osasunaren kontura bada ere, toperaino dirutzea da benetan inportatua zaiena. Horixe egin zuten min moderatua eta handia tratatzeko "OxyContin" opioideen familiako botikarekin. Mendekotasun handia eragiten du, eta 1996. urteaz geroztik asko izan dira gaindosien ondorioz hildakoak. Izan ere AEBetan "opioideen epidemia" deritza.

Filmak aurrera egin ahal, PAINen protesta ekin-tzak ausartagoak eta bisualagoak bihurtzen dira. Metropolitan Museoa "hildakoak" irudikatuz egindako manifestazio masiboetatik hasi, eta Guggenheimeko korridoretatik eroritako errezeta faltuen zaparradetaraino, Goldinek eta bere kide aktibistek artea eta performancea erabiltzen dituzte salaketa tresna boteretsu gisa.

Museo garrantzitsuek (Tate, Louvre, Guggenheim) Sacklertarren izena beren aretoetatik kentzea lortu ondoren, azkenean familia ikusiko dugu. Hor daude, pantaila baten aurrean, Goldin eta bere kideekin, epaiketari online begira (pandemia betea zen). Bertan, Theresa eta David Sacklerrek –soraio, mutu, sor-

gor- entzungo dituzte OxyContin ondorioz senideak galdu dituzten pertsonen testigantza lazarriak.

Goldinen hitzetan, elite dirudunak ez du inolako erantzukizunik. Aberats horiek lege ekipo masiboek babesten dituzte, eta diru kopuru harrigarriak bideratzen dituzte Estatura eta Kongresura, lege aldaketak saihesteko. Berdin dio zein alderdi politiko dagoen boterean, errepublikanoak edo demokratik izan. «Ameriketako Estatu Batuak gainbeheratzen ari dira, eta horrek beldurra ematen du».

Dokumentalak, bestalde, Nan Goldinen ibilbide humanoa eta artistikoa erakusten du. Denboran zeharreko bidaia, edertasunez kontatuta artistaren materialaren bidez: familia argazkiak, etxeko filmak, New Yorken egindako ibilbide artistikoaren argazkiak.

Eta zer gertatu zaie Sacklertarrei? Dirua ordaindu behar izan zuten, baina dirudunak izaten jarraitzen dute. Eta are okerrago, etorkizuneko auzi edo erreklamazioen aurrean babestuta daude. •



Nan Goldin argazkilaria, «All the Beauty and the Bloodshed» dokumentalaren fotograma batean.

{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

Faktore erabakigarriak eta erabakitzen dutenak

Duela lau edo 40 urte hasi zen hauteskunde kanpainan entzuna, asteon: «Erabakigarriak izan gara Euskal Herriko [sic] hiriburuan [sic] Bilduk [sic] goberna ez dezan». Ez zuen Ortuzarrek esan, hura erabakigarria ez ezik, erabakitzaileria ere izan baita. Ezta PSOEko inork ere, hala pentsatu arren, alderdi horrek eta Podemosek Madrilen goberna zezaten EH Bildu erabakigarria izanda. PPko presidente Nuñez Feijook esan zuen, PSOEek Madrilen goberna ez dezan erabakigarria izateko asmoz, PSEri Gasteizko alkatetza emanda errazago izango duela koan PSOERI Espainiako Gobernutik botatzea.

Iruñean PSNk UPNri eman dio alkatetza Madrilen eskuinak goberna ez dezan, Gasteizen eta Gipuzkoan EAJri PSEk bezala. Batzuek erabakitzen dute, beste batzuk erabakigarriak dira.

Berri handirik ez, ordea. PSN zailduta dago Iruñean eta Nafarroa osoan eskuinak goberna dezan erabakigarria izaten. PSEk ere badu eskarmentua, ordea, horrelako erabakigarritasunetan.

2001ean, Mayor Oreja eta Redondo Terreros gogotik saiatu ziren abertzaleen aurka erabakigarri izaten,

baina haien erabakia ez zen erabakigarria gertatu. Bai, ordea, 2009an Patxi Lopez Lehendakariaren jabe egiteko. PP erabakigarria izan zen PSEk hala erabaki zuelako. EAJ haserretu egin omen zen, baina ez asko, ez gobernagarritasunaren aspaldiko bazkideon zoru etikoa higitzeraino behintzat.

Duela zortzi urte, PPko alkate Marotok bederatzi zinegotzi lortu zituen lortu zitezkeen erarik lotsagarrienean, immigranteak jopuntuan jarritz. EAJk, bost. EH Bilduk, sei zituenak, EAJri eman zion alkatetza, Gasteizko herritar gehienek agindu ozena betetzeko formula bakarra baitzen –logika makur baten arabera–. PSEk, ordea, ez zion botorik eman, Andoaingo «trai-

zioa» argudio, baina ez zen erabakigarri izan eta Maroto alkatetzatik bota zuten, 2019an ez zuen lortu Madrilgo Kongresurako txartelik eta alderdiak Sotosalbosen erosi behar izan zion Senaturakoa.

Aspalditik hauteskondeek ez dute itun berri askorik ekarri, Madrilgo azken Gobernua alde bat utzita. Eta azkenek ere itun zaharra ekarri dute, Itun Zakarra.

Luzatu naiz mende honetako historia parlamentarioko erabakitzailerak eta erabakigarriak oroitzen.

Aste honetan denbora izan da erabakigarria turistak Titanic ontzi hondoratuaren hondakinak ikustera eramaten dituen itsaspekoan zihoazenak erreskatzeko. Lerrook idazteko unean bukatzeaz omen zuten oxigenoa; beraz, honezkero agertu ez badira, edo itsaspekoa ostegun eguerdia baino lehen azalera atera

Erabakigarria zen denbora, halaber, asteartean Saharako kostaldean hondoratu zen txalupa pneumatikoan zihoazenak salbatzeko. Erabakigarria baina, antza denez, ez hainbeste

ez bada, oso zaila da tripulatuak gaur bizirik egotea. Itsasontziak, hegazkinak, droneak eta ur handirako hainbat baliabide berezi bidali dituzte zenbait herrialdek Atlantikoko iparraldeko inguru hartara, eta bila ibili dira aste osoan, erlojuaren kontra.

Erabakigarria zen denbora, halaber, asteartean Saharako kostaldean hondoratu zen txalupa pneumatikoan zihoazenak salbatzeko. Erabakigarria baina, antza denez, ez hainbeste. Finean, horiek ohituta dauke itsasoan hondoratzen eta hiltzen.

Miseria gorritik ihes egitea arriskugarria da, baina turismoa ere batzuetan hala da. Eta badira erabakigarria zer den eta noiz den erabakitzen dutenak. •



PANTAILA TXIKIAN

Androideak, ardi elektrikoak eta pantaila txikia

Iragan asteburuan, Azpeitian “IA DENA: adimen artifiziala sorkuntzan” izeneko jardunaldia antolatu zuten. Hitzaldi txiki bat eman nuen bertan adimen artifiziala film eta telesailetan nola landu den azaltzeko. Aitzakia hori hartuta, interesgarria iruditu zait bertako gako eta gomendio batzuk paperera ekartzea. Baliteke, lehenik, aukeratu dudan izenburua ulertu ere ez egitea. “Do Androids Dream of Electric Sheep?” (Amesten dute androideek ardi elektrikoekin?). Philip K. Dick idazleak 1968an argitaratutako zientzia fikziozko eleberria da, 1982an Ridley Scottek “Blade Runner” filma egiteko moldatu zuena. Jorrazten ari naizen gaiaren ordezkari nagusia film hori izan litekeen arren, askoz lehenago ere bazeuden gaiari loturiko izenburuak. 1927. urtean Fritz Lang zuzendari austriarrak adimen artifizialaren eta zinemaren arteko erlazioaren lehen haizak landatu zituen, adibidez. “Metropolis” filma estreinatu zuen; adimen hori zineman islatu zuen lehen filmetako bat izan zen. Istorioa gizarte klausetan banatutako hiri industrial batean garatzen da, eta haren egitura Maria izeneko robotak dinamizatzen du. Geozetik ehunka izan dira zinematik ikusi ditugun adibideak; aipaturiko “Blade Runner”, “Her” edota “Ex Machina”, esaterako. Baina telesailen mundutik atera nahi ez dudanez, bertako gomendio zerrenda ekarri dizuet.

Azken urteotako zenbait izenburu interesgarri.

Adimen artifiziala eta zinema uztartzerako orduan bide jorratu daitezke: bata, sormenari dagokiona. Hollywoodeko Gidoilarien Sindikatuaren greban jasotako eskaeren artean adimen artifizialaren aurrean babesa izatea izan da. Alegia, adimen artifizial bidez sor daitezkeen balizko gidoiak arautzea. Bestea, fikzioan nola landu den gai hori. Azken hori aipatuko dugu gaur: hain zuzen ere, fikzioan, eta zehatz-mehatz pantaila txikian, adimen artifiziala nola jorrazten den eta, jakina, horrekin loturiko gomendio interesgarri batzuk.

Devs

DISNEY +

Zeinen zaila den hainbeste zirrara eta sentsazio transmititu dizkidan telesail baten mamia hitzen bidez transmititzea. Buru-hausgarri existentzial zoragarria iruditu zait, non Alex Garlandek ironiaz gainezka dagoen gidoilari burutsua dela frogatu duen. Zientzia fik-

zioz mozarrotuta dagoen lan zorrotza eta txundigarria.

Lily eta Sergei bikotea dira eta San Frantzisko hiriko kanpoaldeko enpresa teknologiko batean lan egiten dute, Amaya izenekoan. Enpresa misterioz horren barruan, Devs izeneko azpi-proiektu bat garatzen ari den talde bat dago, eta Sergei bertan errekrutatuko dute. Egun batean bera ez da etxera itzuliko, eta Lilyk en-



Gaizka IZAGIRRE BROSA



presak bere desagerpenaren inguruan ematen dion bertsio ofizialaren atzean beste zer-bait ilunagoa dagoela pentsatuko du. Amayaren fatxadaren atzean zer ezkututzen den eta haren proiektu klandestinoen benetako helburua zein den ikertzen hasiko da, ondorio beldurgarri eta latzekin topo egiten duen arte.

Desafiatzailea, intimoa, doctorea eta bisualki hipnotikoa da. Telesaila abangoardiako teknologia ingurune batean girotutako konspirazio thriller moduan egituratua dago. Hainbat kontzeptutan sakontzen du, gainera; hala nola, determinismoa, hautapen askea, ingeniariaritzaren kuantikoa, zer egiten gaituen gizaki eta adimen artifizialaren mugak, besteak beste.

Black Mirror

NETFLIX

Desberdina, suntsitzailea eta azken urteetan ikusitako ekoizpenik original eta probokatzailena da “Black Mirror”. Charlie Brooker gidoilariaren garun perbertsotik ateratako lana kultuzko bihurtu da; sare sozialen eta pantailen garaiko parabola maltzurra da honako hau. Seigarren denboraldia estreinatu berri, aitortu behar dizuet apur bat aldendu egin dela lehen denboraldiek zuten ausardi eta gordintasun horre-

tatik, baina telesail zirraragarria izaten jarraitzen du. Seigarren denboraldi honetan ere hotzikarak eragin dizkidan atalak topatu ditut. Mahai gainean dugun pantaila, eskuen artean darabilgun mugikorra edo etxeko telebista; ispilu beltz, hotz eta dirdiratsuz inguratuta gaude. Bada, telesail-leko atal bakoitza autonomia izanik ere, guztiek dute oinarrian ideia bat: teknologia berrien erabilera txarrak izan ditzakeen ondorio larri eta konponezinak. Istorio batzuk apur bat muturrera eramanda badaude ere, bizi dugun errealitate teknologiko gordina eza-gutzeko ezinbesteko telesaila da. Ikuslea nahitaez pentsatzen jartzen du: gaur egungo zenbat telesail edo filmek lor-tzen dute hori?

MRS DAVIS

HBO MAX

Ia bakarrik saltzen den telesaila dugu hau. Xelebrea, dibertigarria eta hasieran dirudiena baino askoz ere interesgarriagoa eta burutsuagoa. Sortzailak Tara Hernandez eta Damon Lindelof direla aipatzen hasi nahi dut iruzkin hau, nondik datozen jakinda hobeto ulertuko baitituzu telesail honen tonua, egitura eta genero-arte dantza. Lehena “The Big Bang Theory” telesailaren sortzailea da; bigarrenak “Lost” eta “The Leftovers” egin ditu, besteak beste. Tele-

sail horiek uztartzean sor daitkeen konbinazio xelebrea eta ezinezkoa buruan izanda, itzul gaitzeen berriro ere “Mrs Davis”-era. Akzioa, abentura, umorea eta zientzia fikzioa bateratzen dituen proposamena da. Mundu guztiak belarrarian entzungailu moduko bat duen mundu distopiko bat irudikatzen du. Entzungailu hori adimen artifizial batekin konektatuta dago, eta jainkoa balitz bezala, uneoro pertsoneri zer egin behar duten, nola, bizitzan zein helburu izan behar duten eta abar esaten die.

Simone izeneko gure moja protagonistak –moja, bai, ongi irakurri duzu–, munduan kolapsoa eragin baino lehen, adimen artifizial horren aurka borrokatuko du. Gizateriaren fede osoa algoritmo batera bideratua dagoen arren, Simonek aurre egingo dio. Tartean, aipatuko ez ditudan beste azpi-trama zoro batzuk ere topatuko dituzu. Gaingintzea ezinezkoa dirudien egoera surrealista baten ostean, beste bat azalduko da, eta horren ondoren beste bat, eta beste bat... Geure egunerokoa eta bizimodua bera teknologiek xurgatu duten garai honetan, oso zoroa dirudien premisa batetik abiatuta, enpatizatze-ko oso elementu interesgarria da. Horregatik esan dut hasieran dirudiena baino askoz interesgarriagoa dela telesail hau. Entretenigarria, zoroa eta oso dibertigarria da; zer gehiago behar duzu?



WESTWORLD

HBO MAX

Denboraldiak igaro ahala indar eta koherentzia apur bat galdu duen arren, telesail indartsua iruditzen zait. Gertuko etorkizun batean girotuta dago, goi mailako teknologia jolas parke batean. Muturreko abentura zirraragarriak bizitzeko helburuz, pertsona dirudunak joaten dira bertara. Parkea gizaki itxura duten robotez josia dago eta erromatarren, cowboy-en eta Erdi Aroaren simulazio gisa diseinatu dago. Androide horiek bisitarien fantasia guztiak asetzeko diseinatuak izan diren arren, beren nortasunarekiko kontzientzia bereganatzen hasten direnean, guztia aldatuko da. “Zer” kontatu nahi duten oso erakargarria izanik, “nola” ere modu paregabean landua dago. Telesailak hiru ikuspegi narratibotatik bideratzen gaitu hasieratik. Robotena, parke tematiko horretako langileena eta bezeroena. Trama nagusiaren gainetik, dilema moral eta

etikoak ere etengabe egongo dira mahai gainean. Sorpresaz betea eta gidoi aldetik biraketa ugari dituena, mundu ilun eta konplexu batean murgilduko zaitu hasieratik.

SEVERANCE

APPLE TV+

Bizitzeko lan egiten dugu ala lan egiteko bizi gara? Gaiarengatik eta zabaldu nahi duen gizarte kritikarengatik iruditzen zait interesgarria oso telesail hau, baina baita ideia hori pantailartzeko moduagatik ere. Mark Scout-ek lantalde bat zuzentzen du Lumon Industries deituriko enpresan. Bertako langileak prozedura kirurgiko baten eraginpean daude –printzipioz borondatez egindakoa–; beraien oroitzapenek lan eremua eta bizitza pertsonala guztiz bereiztea eragiten duen prozedura baten eraginpean, alegia. Hau da, lanean ari diren bitartean ez dute bizitza pertsonaleko ezer oroitzen, ezertxo ere ez; ez dakite non bizi diren, familiarik duten ala ez edo zoriotsu ala triste bizi diren, esaterako. Laneko atek gurutzatu eta bizitza pertsonalera bueltatzen direnean, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da. Badakite fisikoki non egiten duten lan, jakina, beraiek hala nahi dutelako joaten batira bertara, baina ez dakite zer lan mota egiten duten, zeintzuk diren lankideak, lana gorroto duten ala ez, eta abar. Lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka makabro eta harrigarri horretan kokatutako esperimendu ausart hau zalantzan jartzen hasten duen unean, ordea, Mark misterioz beteriko espiral batean murgilduko da. Gai eta istorio original honi, gainera, Ben Stiller-ek maisuki zuzendutako lehen mailako aktore zerrenda gehitu behar zaio: Adam Scott, Patricia Arquette, Dichen Lachman, John Turturro eta



Christopher Walken, besteak beste. Estetika ere txundigarria iruditu zait. Erakargarritasun nagusietako bat Stillerrek mikromundu bat sortzea lortu izana da. Departamentu bakoitza ekosistema propioa da, eta bertan barne iraultzak, lis-karrak eta ustekabeko adiskidetasunak ere gertatzen dira. Guztia da hain aseptikoa, hain txukuna, hain garbia, hain zuria, baina era berean jariatzen duen lurrina hain dago faltsukeriaz betea eta hain da artifiziala, ezen ikusle gisa oso deseroso sentiarazten baitzaitu, aztoragarria izateraino. Lagunartean eta familian eztabaidak piztuko dituen harribitxia.

ÄKTA MÄNNISKOR ETA HUMANS

PRIME VIDEO

“Metropolis” (1927), “Blade Runner” (1982)... Zinemak askotan irudikatu du gizakion eta roboten arteko erlazio bitxia, baina gutxitan Suediako telesai honetan bezala; klase borroka, xenofobia, maitasuna, bakardadea edota zahartzaroa ageri dira zorrotz aztertuta. Gizakiak eta “hubot” deritzen robotak elkarrekin bizi diren orainaldi alternatiboan kokatzen gaitu “Äkta människor” telesailak; halakoetan ohikoa den cyberpunk estetikatik urrun. Familia gehienek etxe-ko lanak egiten laguntzeko robot horietako bat dute. Istorioa

gizakien menpekotasunetik kanpo askatasun bila dabilen hubot talde batean zentratzen den arren, gidoia hainbat trataman zatituta dago. Adibidez, androidea hondatu zaion aitona bakarti batek berri bat erosteko duen beharra lantzen da istorioetako batean, edo lan egiten duen enpresan robotek langileak ordezkatuko ote dituzten beldur den gizonaren kontakizuna, beste batean. Hainbat azpi-geruzaz osaturiko trama da finean; sekretu, sentimendu eta anbiguotasunez eraikia. Gaiak berriak ez badira, zerk egiten du telesail hau berezi? Gakoetako bat roboten eskubideen tratamenduan datza, apartheid garaiko borrokaz edo AEBetako esklaboen askapenaz ariko balira bezala lantzen baita gaia. Garrantzia ematen zaie roboten eskubideei eta horrela gizatiartu egiten dira. Horrek nahitaez eragiten du ikusleongan, hasieratik identifikatzen baikara pertsonaia guztiekin, gizaki zein robota izan. Makinen iraultza, gainera, ez da gudu eremuetan gertatzen, etxe barruan baizik, arropa lisatzeari edo umeak zaintzari uko egiten dioten momentu “txiki” horretatik aurrera, alegia. Girotzea deigarria da, bisualki guttiz aseptikoa, kolore neutroz josia, ordenatua eta guztia oso garbi dagoen sentsazioa sortzen duena. “Humans” jatorrizko telesailaren Ingalaterrako moldaketa da, eta hori ere gomendatu nahi dizut.



TALES FROM THE LOOP

PRIME VIDEO

Hainbat gorabehera esplikaezinek astinduak izan ondoren, herrixka bateko bizitzaren eta bertako biztanleen inguruko gogoeta originala eta geldoa da. Patxadaz gozatzeko telesail berezia. Gorroto ala maitatuko duzuna. Ez dizut gomendatuko egun gutxitan irenstea, ordea, apurka dastatzea baizik. Argazki zuzendaritza txundigarria, plano hipnotikoak, “The Leftovers” telesaileko Max Ritcher gogorarazten duen Philip Glasen soinu banda liluragarria, kontzeptualki ezin interesgarriagoa iruditu zaidan narratiba eta guztiz ulertu baino gehiago sentitu beharko dituzun atal biribilak. Zientzia fikzioaren erremintak erabiliz, gizakien arteko loturez hausnartzen duen harribitxia.


SILÓ

APPLE TV

Zientzia fikziozko telesail distopiko hau gertuko etorkizun batean girotuta dago. Mundu osoan 10.000 pertsona inguru geratzen dira soilik bizirik eta guztiak lurpean sortu duten komunitate edo hiri moduko batean bizi dira; ehunka solairu dituen silo batean, hain zuzen ere. Kanpoalde toxiko eta hilgarritik babesteko helburuz egin dute siloa, kanpoko mundua toxikoa baita giza bizitzarako. Silo horretako pertsonak,

gainera, araz betetako gizarte batean bizi dira; arau horiek guztiak haiek babestea omen dute helburu. Hori gutxi balitz bezala, jaiotza-neurri zorrotzen menpe bizi dira, baimen berezi bati esker soilik izan baititzakete umeak. Gizarte horren memoria kolektiboa duela 140 urte ezabatu zen, orduan liburuak erre eta artxi-boak konfiskatu baitziren. Inork ez daki Siloko leihotatik haratago benetan bizitzarik dagoen ala ez; hori da sinetsarazi dietena eta kito.

Alde batetik, gizarte erretro-futurista bat aurkezten digute; hau da, etorkizunean girotuta dago, baina badirudi iraganen izozturiko teknologia erabiltzen dutela. Eta misterio-thriller kutsua duen istorioa dago, bestetik. Gizarte horren barruan, jakina, trama orokorra zein misterioa aurrera eramaten laguntzen duten protagonistak daude. Nagusia gertuko pertsona baten hilketari buruzko erantzunak bilatzen dituen eta Rebecca Ferguson aktoreak gorpuzten duen Juliette ingeniaria da. Tim Robbins, David Oyelowo edo Rashida Jones bezalako aktore ezagunek ere parte hartu dute. Seriean, edozein gizarte mota zeinen ahula eta manipulagarria den ikusiko dugu. Gidoiak garatzeko denbora hartzen duen argumentua du, baina beharrezkoa iruditu zait hasierako erritmo geldoa, oinarriak ezarri eta pertsonaiak behar bezala garatzen dituelako.



ireki gure leihoa



GAUR8

Agur, maisu

**Miren AZKARATE
BADIOLA**

1998ko uztailaren 15a zen eta anaiarekin batera ni Kuban nengo. Oporretan? Ez, aitari bisitan. Ordurako nik banekien kazetaria izan nahi nuela, 14 urteko gazte bat nintzen, ideiak oso argi zituena eta zazpi urterekin aitonaren idazteko makina zaharrean bere lehen egunkaria sortu zuena.

Batzuk datarekin konturatuko zineten ez zela udako beste egun arrunt bat izan; egun hartan “Egin” egunkaria eta irratia itxi zituzten, Jabier Salutregi “Salu” zuzendari zela. Bera eta hainbat kide atxilotu zituzten egun hartan eta ondoren, 18/98 izenez ezagutu genuen makrosu-mario horretan, epaitu egin zituzten.

Ez naiz hasiko gertaera hura izan zen astakeriaz hitz egiten. Guk bagenekien orduan, eta beste batzuk orain esaten ari dira. Bermudez epailearen duela hiru asteko hitzak gogora ekarriz, «egunkari bat setio edo salbuespen egoera batean soilik itxi daiteke», edo Gorenak onartu zuena, alegia, ez zegoela egunkari hura ixteko arrazoirik.

Salu nola ezagutu nuen. Momentu horren berezitasuna ekarri nahi dut hona gaur. 2009ko apirila zen, Martuteneko espetxea, nik ordurako bi urte neramatzan han preso eta abisua jaso genuen 18/98ko kide batzuk atxilotu zituztela. Arratsaldean, ziegatik jaitsi eta berehala, “urdinak” gizonetzko kide

batzuk gu agurtzera zetozela esan zingun. Eta hantxe ikusi genituen etortzen gizonen eta emakumeon moduluak lotzen zituen pasillotik barrena Jose Luis Elkoro eta Jabier Salutregi bera; biak, GARA besapean zutela. Besarkada estu bana eman ostean, momentua probestu nuen esateko kazetaritza ikaslea nintzela, lanean ere banenbillela Etixerat Elkartean prentsa bulegoan (espetxean ez bata ez bestea ezin nituen egin), eta abar, eta abar. 25 urte dituenaren indarra, pasioa eta gogoia bizi-bizirik nituen orduan, eta hura inoiz ez galtzeko eskatu zidan. Zuk bazenekien horretaz. Mila esker, Salu. Agur, maisu. •

Barkatu, ez zait interesatzen

**Amagoia
MUJIKA TELLERIA**

Telefono spama bukatu egingo omen da egun batzuetan, legeak hala aginduta. Eskerrak. Kokoteraino nago ezezagunen errietak jasotzeaz. «Ez al duzu dirua aurreztu nahi?». «Entzun gutxienez konstatuko dizudana, sekulako abantaila da zuretzat». «Bi minutu ez dizkidazu eskainiko?». «Zein hizkuntza da hori? Ez dakizu espainolez edo? A zer edukazioa!». «Dirua sobera izango duzu, ezta?». Galdu ditut telebistak, bizikleta estatikoak, lapikoak, tabletak, oliorik gabeko frijigailuak... horiek denak oparitu nahi zizkidaten eta nik, tuntu, ezetz esan.

Esan diet, lasai zein haserre, ez deitzeko gehiago, ez zaidala interesatzen, ez galtzeko denbora alferrik, ez lata

emateko, ez daukadala kasurik egiteko asmorik. Eta, hala ere, alferrik. Deitzen segitzen dute, gero eta erasokorrago, gero eta haserreago, eta niri zerbait saltzeko gero eta aukera gutxiagorekin.

Berdin da lan egun edo jai egun, berdin goiza edo gaua. Maite dituzte gehien molestatzen duten tartear; bazkaldu eta gero sofan esertzen zaren unea; dutxa betean zauden momentua; zartagina sutan daukazuneko; presaka etxeko atea ixtera zoazen unea... Ez dakit zein radar klase daukaten presa daukazula, umore txarrez zaudela, eguna aldrebes doala detektatzeko. Orduantxe, *ttak*, deitzen dute.

Bada, nonbait, aurrerantzean ez digut deituko, ez bada guk baimena ematen dugula aurretik. Bake ederra.

Baina, pentsatzen jarrita, telefono spamak deitzailearen eta jasotzailearen artean sortzen duen harremanak merezi du arreta pixka bat jartzea.

Deitzen duenak sekulako lata ematen du. Pisia da, erreplikakorra, tematia, erasokorra, ez du entzuten... zergatik? Horrelakoa da eta lata ematea maite du? Ez da izango lan oso prekarioa duela eta dei bakoitzean topatu behar duela bizitzeko modua? Bere soldata dei horien segundotan neurtzen ote da? Ezin dut sinetsi inori gozagarri zaionak horrela aritzea.

Eta, bestetik, deia jasotzen duena beti dabil presaka, haserre, egun aldrebesarekin, momentu txarrean. Deitzaileak hori detektatzeko gaitasuna dauka edo beti gabiltza arrapaladan? •

BEGIEN OSASUNA

Uda sasoiaren, azala ez ezik, begiak ere mimoz zaindu beharra dago

📁 OSASUNA / Amagoia MUJKA TELLERIA

Udan azala kontu handiagoz zaindu behar dela barneratuta daukagu, orohar. Bada, begiek ere zaintza berezia behar dute sasoi honetan. «Udan gure ohiturak aldatu egiten dira. Eguzki gehiago, ordu gehiago aire librean, itsasoa, igerilekuak, aire egokitua... urteko gainontzeko egunetako errutina hausten dugu udan eta horrek begiei eragin diezaike. Horregatik garai honetan begiekin ardura berezia izatea komeni da, batez ere biztanleriaren parte batek». Horrela mintzo da Juan Duran oftalmologoa, ICQO institutuko zuzendari medikua.

Hartara, udan ohiko bihur daitezke konjuntibitisa, hantura, fotosentikortasuna, narritadurak eta infekzioak. Egu-

Aire girotuaren gehiegizko erabilera, itsasoko eta igerilekuko ura, eguzkia eta izpi ultramoreak. Uda ez da izaten sasoi samurra begien osasunerako eta halaxe nabarmendu dute oftalmologoek. Azala bezala, begiak ere arduraz zaindu behar dira udan. Betaurrekoak, bisera, higiena eta hidratazioa ezinbesteko aliatuak dira.

nerokoan pauta erraz batzuk jarraitzea nahikoa da begien osasuna zaintzeko: eguzkitik babesteko betaurrekoak edota bisera, begi-ingurua eguzkitik babesteko krema, begiak hidratatzeko malko artifiziala eta higiena ona.

Duranek nabarmendu duenez, begiekin ardura berezia izan behar dute udan ukipenlenteen erabiltzaileek, begieta-

ko kirurgia motaren bat izan duten pertsonen, alergiak dituztenek edota fotosentikortasuna dutenek, esaterako.

Eguzkitan luze egoteak kalte egin diezaike begiei. Dermatologoek abisua emana dute eguzki gehiegik azalean egin dezakeen kalteaz. Bada, begiekin ere kontuz ibili beharra dago. «Jakina da gehiegizko eguzkiak higadura handiagoa

eragin dezakeela erretinan. Adibidez, begi lausoen ebakuntza izan duten pertsonen kontu handiagoz ibili behar dute eguzkiarekin, argi gehiago sartzen zaie eta».

Badirudi makularen endekapen kasuetan ere –ikusmen-gutxitzearen kausa oso ohikoa– eguzkiak eragin handia izan dezakeela, indize ultramoreek kalte egin dezaketelako.

BETAURREKOAK ETA BISERAK

Kontua izan behar da gehiegizko eguzkiarekin, azalarekin ez ezik, baita begiekin ere. Duranek eguzkitako betaurrekoak eta biserak gomendatzen ditu. «Niri biserak asko gustatzen zaizkit, begiak babesteko oso egokiak direlako. Jende askok lasaitu handiagoa sentitzen du biserarekin betaurrekoekin baino. Eta umeentzat

Alergiak dituztenek arazo gehiago izan ohi dituzte urte sasoi honetan. GAUR8





bereziki gustatzen zait bisera, betaurrekoak baino gehiago. Zaila da haurrek betaurrekoen erabilera egokia egitea». Beraz, Duran medikuak garbi dauka: udan nahitaezko aliatu izan behar dute biserek eta eguzkitako betaurrekoak.

«Badakigu eguzkiak erretina higitzen duela eta zaindu beharra dagoela. Gainera, gero eta urte gehiagoz bizi gara eta begietan arazoak izateko aukera handiagoa dugu. Beraz, prebentzio modura, garrantzitsua da begiak zaintzea eta eguzkitik babestea».

Badira egunerokoan har daitezkeen neurriak, errazak eta eraginkorrak izan daitezkeenak. «Udan bidaiak luzeagoak egin ohi ditugu, hegazkinez, autoz, trenez... Horietan aire egokitua jarrita egoten da eta horrek asko murrizten du inguruneke hezetan maila. Ondorioz, ohikoa da begiak lehortzea, ukipen-lenteak erabiltzen dituztenen artean edo

Itsasoan eta igerilekuan uretako betaurrekoak erabiltzea gomendatzen dute oftalmologoek.
GAURB

Duran oftalmologoak dio, igerilekuan eta itsasoan ibiltzeko, onena uretako betaurrekoak erabiltzea dela, begia ez dadin urarekin zuzenean harremanetan egon

Eguzkitik babesteko, betaurrekoak eta bisera dira onenak. Betaurrekoak aukeratzeko profesional baten iritzia beharrezkoa da, ez baitira osagai estetikoak bakarrik

lehendik begi lehorrak dituztenen artean bereziki. Prebentzioa garrantzitsua da. Aire egokituaren erabilpenarekin kontuz ibili behar da. Ahal bada, ez dadila zuzenean begietara bideratu. Eta horrez gain, malko artifizialen erabilera ere egokia izan daiteke, begiak hidratatzeko», esan du Duranek.

Ukipen-lenteen erabiltzailearentzat sasoi berezia da uda. «Batetik, bidaiak luzeetan begia lehortu egiten da, maiz aire egokitua dagoelako tartean. Horregatik, ukipen-lenteak dituzten askok nahiago

izaten dute horrelakoetan betaurrekoak erabili. Bestetik, igerilekuan eta itsasoan ibiltzen gara eta horietan ere kontuz ibili behar da. Ukipen-lenteen erabiltzaileak arduraz bereziki ibili behar du udan. Normalean eguneroko diziplina galtzen da, garbitasun pausatak nahastu egiten dira eta infekzioen bat izateko aukera areagotu egiten da. Udan ohikoa da begietako arazoak areagotzea. Horregatik, kontuz ibili beharra dago. Eta igerilekuan eta itsasoan ibiltzeko, onena uretako betaurrekoak erabiltzea da, begia ez dadin urarekin zuzenean harremanetan egon. Eta haurrekin, berdin. Askotan ateratzen dira uretatik begiak gorri-gorri eginda. Egokiena da uretako betaurrekoak erabiltzea, begiak babesteko».

Gauetan oheratu aurretik malko artifizialak ere lagundu dezake begiak freskatzen eta lasaitzen. Haurretan ere erabi-

li daitezkeela dio Duranen, «baina neurria galdu gabe». «Malko artifizialek freskotasun sentazioa ematen dute eta arriskua dago gehiegi erabiltzeko. Neurrian erabili behar da; gauean oheratu aurretik, adibidez».

EGUZKITAKO BETAURREKOAK

«Eguzkitako betaurrekoa zenbat eta ilunagoa izan, orduan eta gehiago babesten du, baina gehiago murrizten du ikusmena. Ikusmen ahulagoa daukaten pertsonak babestu bai, baina ikusmena murrizten ez dien betaurrekoa behar dute. Oreka hori topatzea ez da erraza, oso pertsonalizatua da eta garrantzitsua da profesional baten iritzia eta aholkua izatea. Eguzkitako betaurrekoak ez dira osagai estetiko bat, begiak babesteko tresna bat dira eta profesionalen esku hartzea beharrezkoa da horiek aukeratzeko orduan», nabarmendu du oftalmologoak.



Eguzkitako betaurrekoen kristalen koloreak bere garrantzia dauka, balio estetikutik haratago. Gainera, kolore bakoitza pentsatuta dago hainbat eratako afekzioak zaintzeko eta babesteko. Adibidez, berdea hipermetropeentzat gomendatuta dago, haien ikuspegia eta kontrastea hobetzen baititu. Lente marroiak miopeentzat egokiak dira, baita kataratetan edo errefrakzio-kirurgian operatuta daudentzat ere, argi-itzalen eremuak aldatzen dituzten argiztapen-espazioetara egokitzen baitira. Gainera, koloreen pertzepzioa gehiegi aldatzen ez duen kolorea da.

Beira horiak ere badaude, aurrekoek ez bezala, argitasun eta kontraste handia eskaintzen dutenak. Erretinako gaitoxotasunak dituzten pazienteentzat gomendatzen dira, eta argitasun gutxiko baldintzetan erabiltzea gomendatzen da; adibidez, ilunaba-

rrean edo egunsentian gidatzeko.

Bestalde, grisak, kolore neutroagoa denez, edozein unetan erabiltzeko aproposak dira, baina koloreen pertzepzioa gutxien aldatzen duen kristala denez, fotofobia duten pertsonen erabiltzea gomendatzen da. Azkenik, teknologia aurrera doa eta udan gehien eskatzen den teknologietako bat polarizatutakoa da. Batez ere, hondartza zapaltzeko egokiak dira, itsasoak itsutu ez dezan.

Azken aholku gisa, garrantzitsua da jakitea eguzkitako betaurrekoek ez dituztela begiak bakarrik babestu behar. Betazalak erabat estaltzen dituzten batzuk aukeratu behar dira, beroak larruazalaren kolageno mailari kalte egiten diolako.

BEGI-INGURUAREN ZAINTZA

Begi-ingurua sentikortasun handiko azala da, erraz erretzen dena. Horregatik, garran-

Eguzkitako betaurrekoak, biserak edo kapelak eta eguzkiaz babesteko kremak ezinbestekoak dira uda sasoiari.
GAUR8

tzitsua da babestea, bai eguzkitako betaurrekoekin bai babes kremak erabilia.

Juan Duranek azaldu duenez, «begi-ingurua boladan dagoen partea da. Zergatik? Betileen erraiak, betazalen ertzak, malkoa egonkortzen duten guruinak ditu. Guruin horiek ondo funtzionatzen ez badute, malkoa lurrundu egiten da eta ez du bere funtzioa betetzen. Horrek begi lehor gehiago eta eragozpen gehiago ekartzen ditu. Eta frogatu da, besteak beste, egoera men-

talarekin duela zerikusia. Antsietatea duten pertsonen, estresa dutenei, gaizki lo egiten dutenei... guruin horiek nahasten zaizkie eta begietako ondoeza sortzen zaie. Askotan ikusten ditugu begi lehorrak dituzten pertsonak ez malkoa falta zaielako, guruin horien funtzionamendua nahastuta daukatelako baizik, eta askotan buru osasuna dago horren atzean. Maiz azaleko nahasmenduak dituen jendea izaten da, horiek ere antsietatearen ondorioz askotan. Begi lehorren mundua oso konplikatu da, kausa asko izan ditzake. Baina antsietateak eta estresak ere eragina daukate begien osasunean».

Beraz, laburbilduz, udan begiak zaindu beharra dago: aire egokituarekin kontuz ibili, itsasoan eta igerilekuan uretako betaurrekoak erabili, eguzkitako betaurreko egokiak aukeratu, bisera erabili eta malko artifizialak eskura izan.

«Badakigu eguzkiak erretina higitzen duela eta zaindu beharra dagoela. Gainera, gero eta urte gehiagoz bizi gara eta begietan arazoak izateko aukera handiagoa dugu»

Udan begiak zaintzeko aholkuak: aire egokituarekin kontuz, itsasoan eta igerilekuan uretako betaurrekoak, eguzkitako betaurreko egokiak, bisera eta malko artifizialak eskura



Maitane MARTINEZ EGUILUZ

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Adimen Artifizialaren alborapena jorratzen: sistema zuzen eta etikoetarantz

Adimen Artifizialak (AA) gero eta eragin handiagoa du gure bizitzetan. Klima iragartzeko edo nahi ez diren mezuak (spam mezuak) iragazteko ez ezik, pertsonen berrerortze kriminalaren arriskua ebaluatzeko edo norbait kreditu bat jasotzeko egokia den zehazteko ere erabiltzen da. Hala ere, sistema horiek **alborapena** izan dezakete eta **estereotipoak areagotu**, behar bezala zuzentzen ez badira.

Demagun AA sistema bat erabiltzen dela pertsona bati banku-kreditua eman ala ez erabakitzeko. Sistema horrek datu historikoetatik ikasiko du, eta datu horietan oinarrituta bereiziko ditu kreditua itzuliko duten pertsonak eta itzuliko ez dutenak. Datu historiko horietan alborapenak badaude –hau da, kredituak emateko probabilitatea pertsona talde jakin bati lotuta badago– algoritmoak **erabaki bidegabeak har ditzake**. Adibidez, software garatzaile ezagun bat Twitterren ke-xatu zen Apple Pay aplikazioa "sexista" zela esanez, bere kreditu-lerroa emaztearena baino 20 aldiz handiagoa baitzen, errenta-aitorpena elkarrekin aurkeztu eta denbora luzez ezkondu egin arren.

Beste esparru batzuetako sistemek ere joera nabarmenak dituzte. Esate baterako, Stable Diffusion irudiak sortzeko AAeko sistemak "Doctor" ("**medikua**" ingelesez) hitza erabiliz gero, **gizonen irudiak** sortzen ditu; baina, "Compassionate" ("**errukiorra**" ingelesez) adjektiboa gehituta, berriz, itzultzen dituen **irudiak emakumeenak** dira, batez ere. Itzultzaile automatikoetan ere topatzen ditugu adibideak: "*él es enfermero, ella es presidente*" esaldia gaztelaniatik euskarara itzultzean, "bera erizaina da, bera presidentea" emaitza ematen digu. Baina, esaldi hori euskaratik gaztelaniara berriro itzulita, aldiz, "*ella es enfermera, él es el presidente*" esaldia itzultzen digu. Probatu Googleko itzultzailean.



Stable Diffusioneak sortutako bi irudiak.

Baina, **zergatik gertatzen da hori**? AA sistemak gizakiek sortzen dituztelako. Pertsonak inplikaturik daude prozesu osoan: datuak biltzetik algoritmoa diseinatzeraino. Beraz, hainbat puntu ditugu non alborapenaren arazoa gerta daitekeen:

– **Datuak etiketatzea**, giza akatsagatik edo irizpide subjektiboengatik. Aurreko adibidera itzuliz, demagun, datu-multzo bat banku bateko kredituen hautagarritasuna zehazteko etiketatzen dela. Etiketatzean (kreditua eman ala ez) arduratzen diren gizakiek aurreiritziak edo estereotipoak errotuta badituzte, errazago eman diezazkietekete kredituak talde batzuei edo beste batzuk diskriminatu ditzakete. Adibidez, emakumeei kredituak uka diezazkietekete ordaintzeko gaitasunari buruzko pertzepzio okerrak dituztelako.

– **Datuen desoreka**, erabiltzen diren datuak errealitatearen azpimultzo bat direlako eta maiz gertatzen delako horietako azpimultzo bat diskriminatzea. Adibidez, testuinguruaren arabera, gerta daiteke emakumezkoak edo afro-amerikarrak gutxiagotan agertzea laginean.

Arazo horiek desagerrarazteko, ez da nahikoa arraza, sexua edo beste aldagai sentikor batzuk sistematik ezabatzea. Izan ere, AAeko sistemak gu baino askoz hobeak dira haiekin **korrelazioa duten beste aldagai batzuk bilatzen**. Adibidez, hezkuntza-maila generoarekin lotuta egon daiteke, historikoki emakume gutxi egiten zituztelako goi-mailako ikasketak.

Arazo horri aurre egiteko, **adituak irtenbideak proposatzen ari dira**. EAeko ikertzaile batzuek itzulpen automatikoan genero-alborapena zuzentzeko teknika berritzaileak sortu dute. Arazo bat ikusi zuten komuntaduran, genero gramatikalik gabeko hizkuntzatik genero gramatikala duen hizkuntzara itzultzean. Esaterako, euskaratik gaztelaniara:


Bera medikua da - *Él es médico*

Hori gertatzen da ezaugarri jakin batzuk emakumeei edo gizonari lotuta daudelako, batez ere enpleguan, eta esaldia-
ren testuinguru anbigua delako. Proposatzen duten teknika-
ren bidez, euskaratik gaztelaniara itzultzeko orduan **genero-alborapenak nabarmen murriztea lortu dute**.

Finean, funtsezkoa da AA modu zuzen eta etikoan erabiltzea. AA sistemak saihestu egin behar dute gure datu eta gizarteetan dauden estereotipoak eta aurreiritziak anplifikatzea. AAeko algoritmoetan alborapena identifikatu eta murrizteko neurriak hartuta, **teknologia benetan inklusiboa eta ekitatiboa** izango den etorkizun baterantz egin dezakegu aurrera. •

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



BENJAMIN HUARDEN BEGIRADA IPAR EUSKAL HERRIARI

Baionako Mediatekak, duela urte gutxi batzuek ge-roztik, jatorriz Bloisekoa zen argazki zale batek, Benjamin Huardek, XIX. mende amaieran egindako irudiak gordetzen ditu argazki-funtsen artean. Lanbidez harakina zen Huard. Egileak album batean sartu zituen berak eta bere familiak Iparraldera egindako bidaietako argazkiak. Bidaia horien arrazoia Marie Rose Dandale emazteak Lapurdiko hiriburuarekin zuen familia-harremana zen. Biarritz, Baiona eta Donibane Garazi dira argazkietan jaso zituen hirietako batzuk; saltokiak, merkatua, zubiak, hiri horien ikuspegi orokorrak baita landa-eremuko irudiak ere. Egin zuen irudirik esanguratsuenetako bat Biarritzeko Toki Eder etxea da, euskal estilo berriko lehen etxea. Artikulua ilustratzen duten bi irudiak 1898an eginak dira, Baionan.



GAUR8 *ireki gure leihoa*

